

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

EZKONGAIETAN EMATEN DEN INDARKERIA OSASUNEAN

Egilea: Janire Orgaz Velasco

Zuzendaria: Bingen Garaizar Ortuzar

Leioan, 2016ko maiatzaren 30ean

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Testuinguru teoriko eta kontzeptuala.....	4
1.1. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren inguruko definizioa.....	6
1.2. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren izaera.....	7
1.3. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren eragina osasunean.....	12
2. Ikerketaren helburuak.....	15
3. Metodologia.....	16
3.1. Lagina eta prozedura.....	16
3.2. Tresnak.....	17
3.3. Datuen analisisa.....	20
4. Emaitzak eta ondorioak.....	20
4.1. Emaitzak.....	20
4.2. Eztabaida eta ondorioak.....	27
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	33
ERANSKINAK	
1.eranskina. Galdetegia.....	35

EZKONGAIETAN EMATEN DEN INDARKERIA OSASUNEAN

Janire Orgaz Velasco

UPV/EHU

Ikerkuntzaren helmuga ezkongaietan ematen den indarkeriak osasunean duen eragina ezagutzea zen. Hori jakiteko, Euskal Herriko Unibertsitateko bi ikasle talderi zein zenbait ezagunei, gaiari buruzko galdetgia egin zitzairen. Gauzak horrela, nahiz eta bortizkeria jaso zein eragin duten pertsonen kopurua txikia izan, gehien ematen zen bortizkeria mota psikologikoa zela esaten zuten emaitzek. Horrez gain, emaitzek, gazteek tratatu txar mota horiek identifikatzerako garaian zuten zailtasuna argitu zuten, eta indarkeria horrek, depresioa bezalako gaixotasun mentalak edota min emozionala eragiten zituela baieztatu zen. Horregatik, ikerketak auto-estima eta emozio kudeaketan oinarritutako gaitasunak lantzea proposatzen du.

Ezkongaien harremana, indarkeria, identifikazioa, osasuna, ondorioak

El objeto de la investigación era conocer cómo influye la violencia durante el noviazgo en la salud. Así, se realizó un cuestionario a dos grupos de estudiantes de la Universidad del País Vasco, y a varias/as conocidos/as. De esta manera, los resultados indicaron que a pesar de que muy pocas personas habían producido y/o padecido violencia, el tipo de violencia predominante, era la psicológica. Además, los resultados esclarecieron que a los participantes del estudio, este tipo de violencia, no les resultaba fácil de identificar, y a raíz de ella, se produjeron trastornos mentales como la depresión o daños emocionales. Por ello, se propone trabajar habilidades basadas en la gestión de emociones y la autoestima.

Noviazgo, violencia, identificación, salud, consecuencias

The object of the research is to know how violence influences in health during engagement. This is why the questionnaire was performed to two groups of students from the University of Basque Country and to several known. In this way, the results indicated that although very few people had produced and/or suffered violence, the predominant type of violence was psychological. Furthermore, the results established that the study participants this kind of violence was not easy to identify, and due to this they occurred mental disorders such as depression or emotional harm. Therefore, it is proposed to work skills based on managing emotions and self-esteem.

Engagement, violence, identification, health, consequences

Sarrera

Lan honen bidez, ezkongaietan ematen diren tratu txarrak aztertuko dira. Horretarako, ikerketa metodoa erabiliko da, bere helburua hauxe izanik: gai honen inguruan dagoen ezagutza zabaltzea. Baina ikergaia oso zabala denez, zerbait espezifikagoa hartuko da oinarri. Gai orokorraren barne hautatutako esparru zehatzagoa zera da: osasuna. Beraz, zehazki, ikerketaren helburua “nola eragiten du ezkongaietan ematen den indarkeriak beraien osasunean?” galderari erantzuna ematea izango da.

Aukeratutako eremua osasuna izatea oso garrantzizkoa da. Izan ere, beste lan batzuetan egileek adierazi dutenez, bortizkeriak osasun fisiko, psikiko eta sexualari begira kalte nabarmenak eragiten ditu. Gainera, arrazoi hau dela medio, eta horrek inplikutzen duen kezka edo arduraren ondorioz, gaiaren inguruko ikerketa asko izan dira, eta gertakizun hau eten beharrean gero eta gehiago ematen denez, lan kopurua igo egingo da. Gainera ere, honen hautaketarako faktore erabakigarria dago: Gizarte Hezkuntzaren eremuan jardutea. Ez baita inoiz ahaztu behar, gizarte hezkuntzaren zeregina gizartearen aldaketan oinarritzen dela, pertsonetan oinarritzen diren eredu ekonomiko, kultural eta sozialak sorraraziz eta indartuz, eta ondorioz, pertsonekin aritzean, xedea norbanako orok bizimodu duina eta kalitatezkoa izatea izango da, baina indarkeriaren arazoak ez du hori bermatzen, eta horri aurre egiteko (prebenituz, etab.) fenomenoak sakontasunez ezagutu behar da.

Ikerketa era egokian gauzatzeko, galdetegiak egingo zaizkie gazteei, eta aztertu beharreko esparrua osasuna denez, aurreikusten diren ondorioetariko batzuk hauek dira: neskek mutilek baino indarkeria sexual eta fisiko gehiago eta bortitzagoa jasotzen dute; eraso psikologikoen ondorioek epe luzean, pertsonarengan, eragin latzenak dituztenak dira; eta tratu txar psikologikoen depresioa bezalako gaixotasun mentalekin zerikusi handia dute.

1. Testuinguru teoriko eta kontzeptuala

Ezkongaietan ematen den indarkeriari (*dating violence*) buruz aritzean, ezin da ekidin esatea, genero indarkeria eta “violencia íntima en la pareja” delako fenomenoak baino gutxiago landu dela urteetan zehar, eta beraz, gutxiago ezagutzen da, beste egile batzuek (Corral & Calvete, 2006; Trujano & Mata, 2002) esanikoa batuz, González-Ortegak, Echeburúak eta Corralek 2008an sustatutako ikerketa batean dioten bezalaxe. Hala esaten da ere, Rodríguez-Franco, López-Cepero, Rodríguez, Bringas, Antuña eta

Estradaren (2010) lanean ere, López-Cepero, Rodríguez-Franco, Rodríguez-Díaz eta Bringasen (2010) lanean oinarrituta. Azken urteotan, oster, aztergai honen gainean ikertzeko interesa edota premia handituz joan da. Hain zuzen ere, bortizkeriaren inguruko arreta gero eta gazteagoak diren bikoteetan zentratzera igaro da (Póo & Vizcarra, 2008), Rojas-Solís eta Carpinterok 2011an argitaratutako artikuluan ageri den moduan. Izan ere, Rubio-Garay, Carrasco, Amor eta López-González (2015) autoreek dioten legez, nerabeen harremanetan ematen diren ekintza bortitzen maiztasunaren gainean, adituak ados daude, eta gainera, abusu hauen giza larritasunari buruzko adostasun orokortua dago ere, biktimen osasun fisiko eta psikologikoan dituzten ondorioak direla eta (Ackard, Newmark-Sztainer & Hannan, 2003; Centers for Disease Control and Prevention, 2012; Eshelman & Levendosky, 2012; Teten, Ball, Valle, Noonan y Rosenbluth, 2009). Hau ere, Rojas-Solís eta Carpinterok (2011) plazaratzen duten bezala, beste egile batzuk baieztatzen dute, hainbat arrazoi direla medio: bikote gazteetan ematen diren indarkeriaren iraunkortasun tasa larriak; abusu horiek biktimetan dituzten ondorio fisiko eta mentalak; eta tratu txar horiek oinarrizko ziklo baten etapa batean agertzea, zeinetan harreman erromantikoak garatzen hasten diren, eta heldutasunera igarotzean, indarkeria larriago baten aurrekari izan daitezkeen elkarrekintzazko urratsak ikasten dira (González-Ortega, Echeburúa & Corral, 2008).

Gauzak horrela, Rubio-Garay, Carrasco, Amor eta López-González autoreek 2015ean idatzitako artikulua batean adierazten duten moduan, badira hiru tendentzia edo korrante ideologiko gaiaren gainean. Artikulu horretan deskribatzen den lehenengoak zera esaten du: ezkondata dauden edo elkarrekin bizi diren bikoteetan ematen den bortizkeriaren egitura berdina du indarkeria honek ere (Laner & Thompson, 1982). Bigarrenak, ordea, hauxe (Rubio-Garay et al., 2015): ezkondata dauden edo elkarrekin bizi diren bikoteetan ematen diren arrisku faktore antzekoak ematen dira ezkongaietan ematen den horretan ere (Carlson, 1987). Hirugarrenak (Rubio-Garay et al., 2015), aldiz, ezkondata edo elkarbizitzen diren bikoteetan eman ahal diren tratu txarrak eta elkar bizi ez diren nerabe eta gazteetan eman ahal direnak ez daukate zerikusirik, gertakari zeharo desberdinak dira (Follingstad, Bradley, Laughlin & Burke, 1999; Stith, Smith, Penn, Ward & Tritt, 2004).

Guzti hori kontuan izanik, lan honetako planteamendua, ezkongaietan ematen den indarkeriari dagokionez, zera izango da: genero indarkeria eta “violencia íntima en la pareja” deritzenak eta gure ikergaia ez dutela egitura berdina, eta nahiz eta eragile komun batzuk izan ditzaketen, testuinguru, norabide, noranzko eta arrisku ezberdinak

dituztela. Hau jakinik, lan honen funtsa den fenomenoan sakonduko da, berau ahalik eta gehien azalduz zein zehaztuz.

1.1. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren inguruko definizioa

Ezkongaietan ematen den indarkeria definitzerako orduan, desadostasun nabariak daude (Rubio-Garay et al., 2015). Alabaina, azterlan horretan azaltzen dutenaren arabera, aipatutako kontzeptuaren barne jokabide anitz har daitezke, mehatxuak eta kontrol taktiken erabilera, boterea edo dominazioa, hitzezko erasoak, zein gehiegikeri edo eraso fisiko eta sexualak (Jackson, 1999; Leen, Sorbring, Mawer, Holdsworth, Helsing & Bowen, 2013; Lewis y Fremouw, 2001; Wolfe, Wekerle, Scott, Straatman & Grasley, 2004). Ildo horretatik jarraituz ere, beste autore batzuen ahotan, ezkongaietan ematen den bortizkeriak bikote harremana eratzen duten bikotekideengan min fisiko, psikiko edo sexuala sortzea helburu du (Krug, Dahlberg, Mercy, Zwi & Lozano, 2003), Celis-Sauce eta Rojas-Solísek (2015) beraien lanean aipatzen duten moduan.

Hala eta guztiz ere, definizio horiek aztertuz, elkarbizitzen diren edo ezkonduka dauden bikoteek paira ditzaketen tratu txarren antzekoak direla pentsa daiteke, hala uste du ere Carlonek (1987), Rubio-Garay, Carrasco, Amor eta López-González (2015) argi uzten duten bezalaxe. Baina gehiago irakurriz, pentsamendu horrek duen akatsa nabaria egiten da, nahiz eta egituran antzekotasunak izan (Carlson, 1987), aztergai den kontzeptuaren baitan, nahiz eta ez den hau jasaten duten pertsonen adin tarte jakina zehazten, nerabezaroan zein gaztaroan ematen dela ulertzen da, elkarbizitzen ez diren bikoteengan hain zuzen (Rubio-Garay et al., 2015). Ezkongaietan ematen den indarkeriari buruz hitz egiterakoan, gainera, aurreko ekarpenak kontuan hartzeaz gain, jarraian adieraziko diren elementuak hartzen dira barne ere. Batetik, erreala den min fisiko, psikologiko edo sexualaren mehatxua edo probokazioa dago (Rubio-Garay et al., 2015). Hala ere, Rubio-Garay, Carrasco, Amor eta López-González 2015. urtean, idatzitako artikuluan, Carrascok eta Gonzálezek (2006) esandakoa berreskuratzen dute, indarkeriazko ekintzetan beti ez dagoela min egiteko intentzioa, alegia; honela, lau autore hauen ikerketa lanean jartzen duen bezala, auto-defentsa eraso arrazoi bat izango litzateke, maiz emakumeengatik erabilia (Follingstad, Wright, Lloyd & Sebastian, 1991; Foshee, Bauman, Linder, Rice & Wilcher, 2007; Harned, 2001; Lewis & Fremouw, 2001; Strauss, 2008). Bestetik, bikotea osatzen duen kide baten gaineko kontrola edo dominazioa dago; abusu edo tratu txar hauek boterea, autoritatea edota harremanaren

kontrola lortzera edo mantentzera zein biktimaren zapalkuntzara bideratuta daudela baieztatzen dute lau ikerleek, beste lan batzuetan azaldutakoa ardatz dutela (Amor, Corral, Bohórquez, Oria, Rodríguez, López & Calderón, 2010; Echeburúa & Corral, 1998).

Aurreko paragrafoetan azaldutakoarekin amaitzeko asmoz, eta aztergaiaren definizioa osatzeko, oso garrantzitsua da esatea, nerabe edo gazteen bikote harremanetan eman daitezkeen bortxa horiek identifikatzea ez dela zeregin batere erreza. Izan ere, abusu horiek ezkongaien indarkeria bezala izendatzeko, lehenengo, bikote harremana zehatz mehats zer den ezarri behar da, eta horrekin bat, zenbateko iraupena izan behar duen, edo normalean, zenbat irauten duen; baina kasu honetan, ez da adostasunik adierazi bikote erlazioak iraun behar duen denbora tartearen inguruan (Rubio-Garay et al., 2015).

1.2. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren izaera

Esandakoa osatzeko, ezin da ahaztu, gai honen baitan, badaudela beste bi pentsamendu mota; hain zuzen ere, bi pentsamoldeak, indarkeria mota honek duen norabideaz mintzatzen dira. Lehenengoak, Rojas-Solís eta Carpinterok (2011) beste autore batzuen esanetatik abiatuta, indarkeria honek norabide bakarra duela, hau da, mutilak direla nesken kontrako abusuak zein erasoak gauzatzen dituztenak esaten duela argi uzten dute (Pelegrín & Garcés, 2004). Bigarrenak, ordea, Rubio-Garay, Carrasco, Amor eta López-González (2015) beste autore batzuen lanak aztertuz, maiz, bortizkeria bi norabideetan gertatzen dela diote; mutilak neskei erasotzen diete, baina alderantziz ere bai (Cyr, McDuff & Wright, 2006; Gray y Foshee, 1997; Harned, 2001; Haynie, Farhat, Brooks-Russell, Wang, Barbieri & Janotti, 2013; Lewis y Fremouw, 2001; Rubio-Garay, López-González, Saúl & Sánchez-Elvira-Paniagua, 2012; Straus, 2008). Honela, lehenengo ideiarekin aldeko ikerlariak edo egileak genero bortizkeriarekin pentsa ahal dena baino zerikusirik handiagoa duela adieraziko dute, honakoa esanez: bizi garen gizarte sistema patriarkalaren ondoriozkoa da, eta beraz, gizonak du boterea eta emakumearen aurka erabiltzen du (Pelegrín & Garcés, 2004), Rojas-Solís eta Carpinterok 2011an idatzitako artikulu batean aipatzen duten bezalaxe. Besteek, aldiz, aurkakoa baieztatuko dute. Hala eta guztiz ere, hainbeste autoreen lanetan esaten denarekin bat eginez, indarkeria bi norabideetako delako sinetsi behar da. Baina ikuspuntua bat edo bestea izanik, datuek erakusten dute nerabezaroan eta gaztetan,

heldutasunean baino emakume erasotzaile gehiago daudela bikote harremanen baitan (González-Ortega, Echeburúa & Corral, 2008).

Ez kongaietan ematen diren tratatu txarrak aztertzerako garaian, kontuan eduki behar da, Celis-Sauce eta Rojas-Solísek (2015) beste ikerleen hitzei erreparatuz baieztatzen duten moduan, garai horretan (nerabezaroan edo gaztetan) hasten direla maitasunezko lehenengo harremanak eraikitzen (Martínez & Rey, 2014). Hainbat azterlan egin ondoren, Celis-Saucek eta Rojas-Solísek (2015) zenbait adituk ateratako ondorioa hau dela esatera ausartzen dira: ezkongaien artean gertatzen den bortizkeriaren arrazoia, intimitatezko harremanetan duten esperientzia eza izan ahal da (Muñoz, Ortega-Rivera & Sánchez, 2013). Beste arrazoiatariko bat, Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernándezek (2010) argitaratutako idazkian, Foshee (1996) aipatuz, indarkeria fisikoaren kasuan behintzat, desatsegina den egoera batetik defendatzeko edo alde egiteko saiakerari sor zaiola adierazten dute. Hala eta guztiz ere, badaude horren biktima edota erasotzailea izatea eragin ditzaketen arrisku faktore argi batzuk, zeinak hiru taldeetan banatzen diren: biografiko eta pertsonalak, pertsona artekoak, eta soziokulturalak (Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010). Beste ikerle batzuk, aldiz, bi talde nagusitan sailkatzen dituzte: pertsonalak edo pertsona artekoak eta egoeren arabekoak (Rubio-Garay et al., 2015). Baina eragile horiek, aldi berean, indarkerian jokatzeko paperaren arabera bereiz daitezke: amildu egiten dutenak, errazten dutenak, modulatzeko dutenak eta babesten edo inhibitzen dutenak (Rubio-Garay et al., 2015). Honela, Rubio-Garayk, Carrascok, Amorek eta López-Gonzálezek, 2015ean, beste lan batzuetakoa (Fuentes, 2010; Foshee, Reyes & Ennett, 2010; Gorman-Smith, Tolan, Sheidow & Henry, 2001; O'Leary & Slep, 2003; Parrot & Zeichner, 2003; Sebastián et al., 2010) aztertuz, bi sailkapen horiek nahasten dituzte, arrisku eragile horiek hurrengo eran banatuz:

a) Jasotako edo gauzatutako erasoarekin erlazionatuta dauden faktore pertsonalak edo pertsona artekoak:

- Amiltzen dutenak:

- Gauzatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: alkohol eta drogen kontsumoa.

- Errazten dutenak:

- Pairatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: alkohol eta drogen kontsumoa; deseaturakoak ez diren haurdunaldiak; distrakzioari edo urruntasunari aurre egiteko estrategiak; bortizkeriaren aldeko jokaerak; emakumearen inguruko

jokabide negatiboak; izaeraren gaineko alterazioak; psikopatologikoak diren alterazioak; bikotean indarkeria egon izanaren aurrekariak; auto-estimua baxua; arriskutsuak diren sexu jokaerak; komunikazio trebetasun eskasia; arazoaren konponketaren inguruan defizita; genero estereotipoak; ideia eta jokaera suizidak; eta eskola arazoak eta errendimendu akademiko baxua.

- Gauzatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: kontrol jokaerak eta jelskor egotea; jokabide antisoziala; enpatia baxua; etsaitasuna; haserre kortasuna; bortizkeriaren aldeko jokaerak; emakumearen inguruko jokabide negatiboak; izaeraren gaineko alterazioak; psikopatologikoak diren alterazioak; bikotean indarkeria egon izanaren aurrekariak; auto-estimua baxua; arriskutsuak diren sexu jokaerak; komunikazio trebetasun eskasia; arazoaren konponketaren inguruan defizita; genero estereotipoak; ideia eta jokaera suizidak; eta eskola arazoak eta errendimendu akademiko baxua.

- Modulatzen dutenak:

- Pairatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: bortizkeriaren aldeko jokabideak; afektu negatiboa; auto-estima; adina; enpatia; genero estereotipoak; eta atxikimendu estila.

- Gauzatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: bortizkeriaren aldeko jokabideak; afektu negatiboa; auto-estima; adina; enpatia; genero estereotipoak; eta atxikimendu estila.

- Babesten/ inhibitzen dutenak:

- Pairatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: auto-estima handia; enpatia handia; komunikazio eta arazoaren konponbiderako gaitasunak; auto-efikazia pertzepzioa; eta errendimendu akademiko positiboa.

- Gauzatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: auto-estima handia; enpatia handia; komunikazio eta arazoaren konponbiderako gaitasunak; auto-efikazia pertzepzioa; eta errendimendu akademiko positiboa.

- Funts gabekoak:

- Pairatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: deskonexio morala; jatorri etnikoa; bikote harremanaren baitako gogobetetasuna; eta sexua.

- Gauzatutako erasoarekin erlazionatuta daudenak: deskonexio morala; jatorri etnikoa; bikote harremanaren baitako gogobetetasuna; eta sexua.

b) Pairatutako edo aurrera eramandako erasoarekin zerikusia duten egoeren araberako faktoreak:

- Amiltzen dutenak:
 - Gauzatutako erasoarekin zerikusia dutenak: estres psikosoziala.
- Errazten dutenak:
 - Jasotako erasoarekin zerikusia dutenak: haurtzaroan jasotako tratu txarrak eta sexu abusuak; familia arteko indarkeria; bortizkeria komunitatean; berdinek beren bikoteetan gauzatzen duten indarkeria beste bikote batzuen erreferentzia gisa; giza laguntza baxua; hezte ohitura disfuntzionalak; eta estres psikosoziala.
 - Gauzatutako erasoarekin zerikusia dutenak: haurtzaroan jasotako tratu txarrak eta sexu abusuak; familia arteko indarkeria; bortizkeria komunitatean; berdinek beren bikoteetan gauzatzen duten indarkeria beste bikote batzuen erreferentzia gisa; giza laguntza baxua; eta hezte ohitura disfuntzionalak.
- Babesten/ inhibitzen dutenak:
 - Jasotako erasoarekin zerikusia dutenak: laguntza soziala; eta hezte ohitura positiboak.
 - Gauzatutako erasoarekin zerikusia dutenak: laguntza soziala; eta hezte ohitura positiboak.
- Funts gabekoak:
 - Jasotako erasoarekin zerikusia dutenak: bizilekua; familia egitura; estatus sozioekonomikoa; eta komunikabideak/ bideojokoak.
 - Gauzatutako erasoarekin zerikusia dutenak: bizilekua; familia egitura; eta komunikabideak/ bideojokoak.

Ezkongabe gazteetan gertatzen den indarkeriaren eragileak ikusita, bakarrik gogoratzea, Sebastiánek, Ortizek, Gilek, Gutiérrez del Arroyok, Hernáizek eta Hernándezek (2010) honen inguruan diotena, “[...] no se trata de elementos aislados sino que la interrelación de muchos de ellos pueden ocasionar actitudes y comportamientos violentos hacia la pareja”.

Amaitzeko, kolektibo honengan ematen diren tratu txar motak zerrendatzea eta azaltzea funtsezkoa da. Batetik, tratu txar fisikoa dago, eta hau, aurki daitezkeen lanetan aztertuen izan da (Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010). Gehiegikeria fisikotzat jo daitezkeenaren artean, honako jokabideak daude: jotzea (ostikadak jotzea...), bultzatzea, zaplaztekoak ematea, haginka egitea, fisikoki eusten

saiatzea, arma edo labain batekin mehatxatzea, objektuak botatzea, zauritzea, apurketak, itotzen saiatzea, jotzearekin edo kolpeak ematearekin mehatxatzea, eta kolpeak (Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010; Rubio-Garay, López-González, Saúl & Sánchez-Elvira-Paniagua, 2012). Bestetik, indarkeria psikikoa dago, eta aurreko esaldian aipaturiko lehenengo sei egileek, hainbat adituren iritziz, tratu txar fisikoarekin duen lotura handia duela baieztatzen dute, hau da, orokorki, indarkeria psikologikoa fisikoaren aurrekaria izaten dela (Capaldi & Crosby, 1997; Hydén, 1995; Kasian & Painter, 1992; Parker, 2006). Abusu psikologikoen barne, hauek daude: mehatxuak, umilazioak, irainak, bortxak, haserreak eragitea, manipulazioak, gutxiespenak, oihuka aritzea, kritikitzea, debekuak eta derrigortzeak, sentimendu edota emozioekin jokitzea, isolamendua, posesibotasuna... (Rodríguez-Franco, López-Cepero, Rodríguez, Bringas, Antuña & Estrada, 2010; Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010). Halaber, Sebastiánek, Ortizek, Gilek, Gutiérrez del Arroyok, Hernáizek eta Hernandezek (2010) dioten legez, beste batzuen ustetan, indarkeria psikologikoaren baitan hainbat azpitalde egin daitezke, eta euren izendapena hauxe da: gutxiespen eta etsaigo jokamoldeak; bikotea dominatzea edo intimidatzea; bikotekidea degradatzea; kontrol murriztailea; jokaera jeloskorrak; eta jazarpen jokaerak (Murphy & Hoover, 2001; O'Leary & Slep 2003). Gauzak horrela, ikerketek argi erakusten dute emaitzen arteko aldakortasuna, bietako zein sexuk erasotzen eta zeinek gehiegikeria pairatzen duen baieztatzerako unean (Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010). Baina, orokorki, esaten da, neskek pairatzen dutela indarkeria fisiko gehiago, eta mutilek eraso gehiago sustatzen dituztela; indarkeria psikologikoaren gainean, ostera, mutilek gehiago jasaten dutela, eta neskek gehiago sustatzen dutela (Archer, 2000; Muñoz-Rivas, Graña, O'Leary & González, 2007); Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernández autoreek aipatua. Erasoa sexuarekiko dagokienez, berriz, Sebastián-ek, Ortiz-ek, Gil-ek, Gutiérrez del Arroyok, Hernáiz-ek eta Hernández-ek (2010), hauek, deseaturakoak ez diren harreman sexualak inposatzera bideratuta dauden presio fisiko zein psikologikoei (bortxaketa, intimidazioa, babesgabatasuna...) egiten dietela erreferentzia aitortzen dute. Pertsona horiek ere, indarkeria sexuala, gehienbat, neskek jasaten dutela mutilengandik (Harned, 2001) azaltzen dute. Indarkeriaren hiru aldaera hauez aparte ere, badago egun, IKT-ean (Informazio eta Komunikaziorako Tresnak) garapen handiaren eraginezko ondorioa: bortizkeria zibernetikoa. Honetan ematen diren ezaugarriak, psikologikoan ematen direnen antzekoak, zein sexuarekin ematen direnen

antzekoak ere izan daitezkeela esan behar da. Azken finean, indarkeria zibernetikoa, ez da berez beste indarkeria mota bat, eraso psikologikoak eta sexualak igortzeko bidea baizik. Honela, bikotekidearen gaineko kontrola mantentzen da, gizarte sareen bidez (Martín, Pazos, Montilla & Romero, 2015), eta batzuetan ere, Durán eta Martínez-Pecino-k (2015) aipatuta, “sexting” (eduki sexuala edo erotikoa duten argazki edo bideoen hedapena) bezala ezagutzen den fenomeno ere bermatzen da (Delegación del Gobierno para la Violencia de Género, 2013).

1.3. Ezkongaietan ematen den indarkeriaren eragina osasunean

Aurretik egindako analisiaren ostean, gertakariaren azterketa on bat egin ahal izateko, lanaren ardatza zein den zehaztuko da. Hain zuzen ere, aztergaiaren barne gehien interesatzen den alorrari buruzko ikerketa jorratuko da. Kasu honetan, osasuna izango da arlo hori. Beraz, eginkizuna galdera honi erantzutea izango da: nola eragiten du ezkongaien arteko indarkeriak beraien osasunean? Galdera horri erantzuten hasteko, lehenik eta behin, gaiaren inguruan beste jakintsu batzuek idatzitakoa gogoratzea ondo legoke.

Lehenago baieztatu den moduan, ezkongaien artean ematen den indarkeria giza arazoa izateaz gainera, osasunean larriki eragiten duen arazoa ere bada (González-Ortega, Echeburúa & Corral 2008). Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernández (2010) autoreen hitzetan “en muchas familias y parejas la violencia está ocasionando efectos irreparables en su bienestar emocional y social [...]” hala esaten da ere. Arazo honek, forma edo itxura desberdinak har ditzake (indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala), eta horiek, norbanakoengan ondorio batzuk dituzte; hala ere, ez dute modu berebean eragiten banakoarengan. Modu honetan, badaude, arazoa pairatzen duen gizabanakoarengan, kalte arinagoak eta larriagoak eragiten dituztenak, eta hauek, aldi berean, epe motzean, ertainean zein epe luzean ikustarazten dira. Gainera, badago ezberdintasuna ere, neska edo mutil batengan ematen bada, baita segun eta zein adinarekin ematen den ere.

Alde batetik, pertsonaren sexua kontuan izanez gero, ohartzen gara ez dela berdina neska edo mutila izatea, indarkeriaren ondorioak pairatzerako orduan. Izan ere, biologikoki neska bat eta mutil bat nahiko desberdinak dira, adibidez, mutilek indar fisiko gehiago izaten dute. Honela, ikerketaren esparruan frogatzen da, Sebastiánek, Ortizek, Gilek, Gutiérrez del Arroyok, Hernáizek eta Hernándezek, 2010eko lan batean

jasotakoa: neskek, jasotako gehiegikeria fisikoaren eraginez, egoera berdintsuetan erakusten dituzten zauriak mutilenak baino larriagoak dira (Muñoz-Rivas, Graña, O'Leary & González, 2006; O'Leary & Smith, 2003). Baina bi sexuen arteko gatazkak ulertzeko, gizartearen egitura eta funtzionamendua konprenitzea ezinbestekoa da. Edonork daki emakume eta gizonei erabat desberdinak eta kontrakoak diren ezaugarriak atxikitzen zaizkiela, sistema patriarkal eta kapitalistaren eraginez; sistema honek, ilustrazioaren pentsaera du ardatz. Hortaz, pertsoneri atxikitzen zaizkien ezaugarri eta gaitasunek hauek definitzea dute xede, honela, emakumeei ematen zaizkien artean, natura (kontrolik gabekoa), gorputza, emozioa, ezagupen tradizionala, ahultasuna, esperientzia, alor pribatua eta lan ugalkorra daude; gizonei ematen zaien artean, ordea, kultura, indarra, adimena, arrazoia, ezagutza zientifikoa, zientzia, eremu publikoa, lehiakortasuna eta ekoizpen lana daude. Horrela, Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernándezek (2010), Gonzálezek eta Santanak 2001. urtean adierazitakoa islatzen dute bere lanean: nahiz eta mutilek ez hasi eraso, hauek, indarkeria mota arriskutsuagoak erabiltzen amaitzeko aukera gehiago dituzte. Hala ere, aipatutako molde edo eredu horietatik aldentzen diren pertsonak daude ere, jaso duten heziketari esker. Modu berean, badaude heterosexualak ez ezik, orientabide homosexualak duten norbanakoak ere, eta hortaz, hauek ezartzen dituzten bikote harremanetan liskarrak egon daitezke ere. Baina batez ere, ikerketak neska eta mutil batengatik osatuta dauden bikoteetan ematen den bortizkeria aztertu baino ez dute, eta ondorioz, bikote homosexualetan ematen den indarkeriaren nolakotasunak ezagutzea zailagoa da. Horregatik, nesken eta mutilen arteko harremanei soilik egingo zaie erreferentzia. Modu honetan, tratu txar psikologikoari dagozkion datuak kontuan edukiz, azpimarratzekoa da ez dagoela adostasunik bietako zeini (neska edo mutila) eragiten dion min gehiago edo handiagoa zehazterakoan (Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández, 2010).

Beste alde batetik, aztertzen den gertakariak izan dezakeen gogortasuna eta iraunkortasuna zein den ikustea oso esanguratsua da. Honela, bikoteengan duen iraunkortasunaren eta jarraitasunaren kausen artean, bikote kideek harremanari buruz dituzten mito edo sinesmenak, eredu bortitzenganako erakusketa edo erlazioaren ezaugarriak daude (Rubio-Garay, Carrasco, Amor & López-González, 2015). Horren eraginez, Sebastián-ek, Ortiz-ek, Gil-ek, Gutiérrez del Arroyo-k, Hernáiz-ek eta Hernández-ek (2010) honakoa baieztatzen dute “la mayoría de ellos-as creen que la violencia no es una amenaza, puesto que solo la identifican en los casos más severos

[...] y no la identifican como conductas coercitivas y de control, solo como agresión física”. Horri lotzen zaio, gizarteak estereotipo jakinen onarpena bultzatzea Harned-ek (2001) dioen moduan. Ildo honetatik, oso esanguratsua dirudi ere Sebastián-ek, Ortiz-ek, Gil-ek, Gutiérrez del Arroyo-k, Hernáiz-ek eta Hernández-ek (2010) esaten dutena, “los-as adolescentes perciben el amor con pocas dosis de realidad y muchas de romanticismo”. Beraz, honetan, eragin nabarmena du aurreko paragrafoan gizartearen inguruan aipaturikoak. Horrez gain, bortizkeriaren iraunkortasunean zein gogortasunean eragiten duten eragileak hauexek dira: konpromiso maila, harremanaren iraupena, erlazioaren finkapena edo “seriotasuna” eta bikote kideen adina (Rubio-Garay, Carrasco, Amor & López-González, 2015). Kasu honetan, aurreko esaldian adierazitako autoreek batzen duten bezalaxe, zenbat eta konpromiso edo inplikazio gehiago erakutsi harremanean, erasoak gertatzeko posibilitatea igotzen da (Cleveland, Herrera & Stuewig, 2003). Hauek ere, harremanaren iraupena (Giordano, Soto, Manning & Longmore, 2010) eta horren finkapenarekin (Arias, Samios & O’Leary, 1987; Hanley & O’Neill, 1997) modu berdinean gertatzen dela adierazten dute. Adinarekin, ordea, dagoen tendentzia alderantzizkoa da (Rubio-Garay et al., 2015); hau da, urte gehiago dituzten pertsona horiek, gutxiago dituztenak baino aukera gutxiago dute indarkeria pairatzeko edota sustatzeko (Fritz & O’Leary, 2004; Jackson, Cram & Seymour, 2000; Smith, White & Holland, 2003). Adinari dagokionez ere, esateko, Rubio-Garayk, Carrascok, Amorrrek eta López-Gonzálezek (2015) egile baten lanaren bidez, indarkeria kasuen barne egoteko arrisku gehieneko aldia, pertsona batek 20-25 urte bitartean dituen izaten dela (O’Leary, 1999), egiaztatu zutela.

Azkenik, tratu txar mota ezberdinek zer-nolako ondorioak kausa ditzaketen azalduko da, nerabe eta gazteon osasunari begira. Batetik, tratu txar fisikoak, izenak dioen moduan, besteak baino errazago antzeman daitezkeen eta azaleratzen diren ondorioak ditu jasaten duenarengan. Hain zuzen ere, apurketak (hezurrak...), abaildurak/ ubeldurak eta kolpeak, urradurak, puzkortasuna, etab. Hala ere, tratu txar fisikoak nolabaiteko ondorio psikikoa (asebetetze eta zorientasun eza, edo beldurra, esate baterako) izan dezake ere; batez ere, zenbat eta luzeagoa izan denboran, abusuaren iraupena. Gainera, Rubio-Garay, Carrasco, Amor & López-Gonzálezek (2015) aditu batzuen hitzak kontuan hartuz, eraso psikologikoak indarkeria fisikoaren aurrekariak izan daitezkeela, independenteki eman daitezkeela edo aldi berean eman ahal direla (Pozueco, Moreno, Blázquez & García-Baamonde, 2013) adierazten dute. Bestetik, Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz & Hernández (2010) eginiko lanean, beste lan batzuetan

ikertutakoari esker, argi dago, tratu txar psikologiko eta sexualak, fisikoak sortzen dituen moduko ondorioak edo larriagoak izan ditzakeela osasunean (Echeburúa & Corral, 1998; O'Leary, 1999; Sarasua & Zubizarreta, 2000). Autore hauek (Sebastián et al, 2010) diotenez, Harned-ek 2001ean, nerabeengan indarkeria psikologikoak utzitako estres maila neurtu eta baloratzekoan, indarkeria fisikoa jasan zutenek zuten estres maila baino handiagoa zela frogatu zuen. Are gehiago, Blázquez, Moreno eta García-Baamondek (2015), beste ikerle batzuen hitzak irakurrita, manipulazio, umilazio eta intentsitate altuko estres psikologikoa erakusten duten biktimek, urteak geroago, buruko osasunari begira, tratu txar fisikoak jasan dituzten horiek pairatzen duten endekatze berdina edo handiagoa izaten dutela (Basoglu, 2007; Henning & Klesges, 2003; Marshall, 1992; Sacket & Saunders, 1999; Street & Arias, 2001), baieztatu zuten. Gainera, tratu txar psikologikoen nerabe edo gazteengan, elikadura nahasmenak (Ackard & Neumark-Sztainer, 2002); antsietatea, depresioa eta estres pos-traumatikoa (Harned, 2001); eta bikote harremanarekiko asebetetze zein poztasun maila baxua (Katz, Washinton & Coblentz, 2002) eragin dezaketela azaltzen dute Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernández (2010) ikerleek. Are gehiago, Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernández (2010) egileek, indarkeria jasotako nesken, tristura sentimenduak, buruaz beste egitearen inguruko ideiak, drogen kontsumoa (Howard & Wang, 2003), depresioa, alkohol kontsumoa, tabakoa eta errendimendu akademiko baxua (Rivera-Rivera, Allen, Rodríguez-Ortega, Chávez-Ayala & Lazcano-Ponce, 2006) bezalako ondorioak zituztela baieztatu zuten.

2. Ikerketaren helburuak

Egin nahi den ikerketarekin nahi dena, aurretik zehaztu den moduan, ezkongaien arteko indarkeriak zer-nolako eragina duen haien osasunean aztertzea da. Zehazki, azertu nahi den kolektiboaren barruan, ez ditugu kontuan edukiko bakarrik erasotzaileak diren neska-mutikoak, baizik eta erasotzaile zein biktima, edo soilik biktima diren neska edo mutilak. Honela, gure helburu nagusiak honako dimentsio hauek kontuan hartuko lituzke:

- a) Osasunean epe motz, ertain eta luzera begira, bortizkeriak izandako ondorio eta aldaketak ezagutzea:
 - Indarkeriak osasun fisikoan duen eragina.
 - Indarkeriak osasun psikikoan duen eragina.

- Indarkeriak osasun sexualean duen eragina.
- b) Biktimek beren gogamenean zein gorputzaren osasunean, indarkeriaren eraginez, emandako aldaketen identifikazioa, eta aldaketa horien inguruan duten pertzepzioa edo pentsamoldea ezagutzea.
- c) Biktimek osasunean izandako galeraren ondorioz egindakoa edo aurrera eramandako ekintzak zeintzuk diren jakitea.

3. Metodologia

3.1. Lagina eta prozedura

Erabilitako lagina hautatua izan da, iritziaren arabera aukeratua, eta konglomeratuen bidez egindakoa; EHUKo (Euskal Herriko Unibertsitatea) Bizkaiko Kanpuseko, Gizarte Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako graduetako 2. mailako euskarazko ikasle talde biri, eta unibertsitateko zein hortik kanpoko ezagun batzuei egin baitzaie galdetegia. Ikerketan, hain zuzen, 19-33 urte artean dituzten 92 pertsona hartu dute parte; hauen partaidetza borondatezkoa izan da.

Unibertsitateko ikasleei galdetegia helarazteko bidea, gradu bakoitzean, 2. mailan eta bigarren lau hilekoan, klaseak ematen dituzten bi irakasleren laguntza izan da. Izan ere, unibertsitateko posta elektronikoaren bidez, beraiekin harremanetan jarri (tutorea pertsonalki, beraiekin kontaktuan jarri da ere), eta baimena eman dute haien klase-orduko momentu batean, ikasleek galdetegia erantzun dezaten. Ezagunei galdetegia pasatzeko prozesua desberdina izan da; beraiekin hitz egin eta gero, e-mail bidez bidali zaie, edo beraiekin geratuta galdetegia igaro zaie. Horrekin bat, esan behar da, bai unibertsitateko ikasleei zein ezagunei galdetegia egitea eskatu zaienean, ikerketaren gaia, zergatia eta galdetegiarekin bilatzen dena azaldu zaiela; gainera, galdetegiaren anonimotasunaz informatu da ere, eta galdetegia bera egiteko unean sortutako zalantzak argitu dira.

Parte-hartzaileen adina bataz beste 20,83 urte (desbideratze tipikoa = 2,46; N = 91; daturik gabe = 1) dira. Laginaren guztizkotik, 19 gizonak (%20,65) dira, eta horien adinaren bataz bestekoa 21,05 urte (desbideratze tipikoa = 1,54) dira. Emakumeak, ostera, 73 (%79,35) dira, eta beraien adina bataz beste 20,78 urtekoa (desbideratze tipikoa = 2,66; N = 72; daturik gabe = 1) da. Horrez gain, esan behar da, pertsona askok, ikasten ari direnaz, edo duten lanaz aparte, beste ikasketa batzuk gauzatu dituztela ere

(unibertsitateko beste graduren bat, goi-mailako zikloren bat, ikastaroren bat...); baina ikerketa honetan, pertsonak eginiko maila altueneko ikasketak edo eta une honetan jorratzen ari direnak kontuan izan dira. Honela, DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) duen pertsona 1 (%1,1) dago; erdi-mailako ziklo bat duten 2 pertsona (%2,2); goi-mailako ziklo bat duten beste 2 (%2,2); eta unibertsitateko gradu batean dauden beste 87 (%94,5) daude. Unibertsitatean dauden pertsonen artean, jorratzen ari diren ikasketen arabera bereizketa egin da: 51 pertsona (%55,4) Gizarte Hezkuntzako Graduan dihardute eta 36 (%39,1) Haur Hezkuntzako Graduan. Amaitzeko, pertsona hauek, aurrera eramaniko ikasketen arabera batuz beste duten adinaren inguruko datuak islatzen dira ondorengo taulan.

Taula 1. Parte-hartzaileen adina sustatutako ikasketen arabera.

Eragiketak / Ikasketa motak	Bataz bestekoa	Desbideratze tipikoa	N	Daturik gabe
Haur hezkuntza	20,48	2,54	35	1
Gizarte hezkuntza	20,80	1,92	51	0
Goi-mailako Zikloa	23,00	1,41	2	0
Erdi-mailako Zikloa	25,50	9,19	2	0
DBH	21,00		1	0

3.2. Tresnak

Informazio bilketarako erabilitako tresna bakarra, galdetegia da. Izan ere, lan honen helburuak bete ahal izateko, galdetegia erremintarik hoberena zein fidagarriena dela uste da. Tresna hau erabiltzeak, ikerketa egiteko erabiliko den laginaren tamaina handitzea ahalbidetzen baitu; zenbat eta pertsona gehiagori helarazi galdetegia, orduan eta gehiago hurbilduko dira ikerketaren emaitzak fenomenoaren inguruan ematen den errealitatera. Gainera, galdetegia izanik, jendeari bere identitatea babesteko aukera ematen zaio.

Galdetegiak ikertu nahi denarekin zuzenki lotutako hainbat alderdi jorratzen ditu, eta horregatik, bere egituran hiru atal nagusi bereizten ditu: lehena, gertakariaren inguruan gazteek duten iritzia eta ezagutza, baita horien jatorria biltzeko; bigarrenak, bikotearengandik tratatu txarrak pairatu dituzten edo ez, bikotekidearenganako indarkeria erabili duten ala ez, zein tratatu txar horien nolakotasuna eta maiztasuna zein den jakiteko balio du; eta hirugarrenak, aldiz, bortizkeria jasan duten gazteen artean, zer-nolako

ondorio edo eraginak dituen edo izan dituen indarkeriak, eta hauek, tratu txarren zein horren eraginen aurrean, nola jokatu duten ezagutzea ahalbidetzen duena. Honela, galdeketaren lehenengo bi zatiak parte hartzaile guztiei bideratuta daude, eta hirugarrena, ordea, bikote harremanean bortizkeria jasan dutenek bete behar dute soilik. Galdetegiaren egiturari buruz mintzatzen jarraitzeko, esanguratsua da esatea, honek, hasieran, pertsona bakoitzaren ezaugarri orokor batzuk batzen dituzten lau galdera dituela; pertsonaren adina, sexua, ikasketak eta bere bikote harremanak neska edota mutilekin izan diren. Horiek adierazteko era, nahitaezko aukera item bat eta hiru item betegarri izan dira. Ondoren, lehen aipatutako atalak datoz.

Lehenengoari, *Ezagutza eta Iritzia* deitu zaio, eta horren baitan, bost galdera ireki ageri dira. Hau da, horietan, genero indarkeriaren eta ezkongaietan ematen den indarkeriaren arteko desberdintasunaz, edozein motatako harreman afektibo osasuntsuak bete beharreko baldintzez, bikote harreman osasuntsuak bete beharrekoetz, ekintza bortitz bat identifikatzeko gaitasunaz, eta galdera horien erantzunetan islatu dutena nondik atera duten, galdetzen zaie.

Bigarren atala *Gertaera edo ekintzak* izenburuarekin izendatu da, eta horren hasieran, parte hartzaileentzako azalpen txikia idatzi da, galdeketaren zati horretan eskatzen dena edo egin behar dutena jakin eta uler dezaten. Horrela, enuntziatuak zera esaten du: *Atal honetan, zure esperientziaren arabera, batetik bosterainoko puntuazioaz baloratu behar dituzu ondoko baieztapenak. Puntuatzeko, 16 urte zenituenetik orain arte izandako edozein bikote erlazio hartu dezakezu erreferentziazat. (Beti ere, hilabete bat edo gehiago iraun badu harreman horrek)*. Enuntziatuan ageri den moduan, puntuatu ahal izateko, Likert itemak erabili dira, batetik bosterainoko zenbakiak erabiliz, eta hauei, gertakizunen maiztasunarekin erlazionatutako esanahi bat atxiki zaie: 1 = inoiz, 2 = ia inoiz edo noizbait, 3 = noizbehinka, 4 = askotan eta 5 = beti. Atal honetan, gainera, hiru esparrutan banatzen diren item ugari ageri dira; arloak, psikologikoa, sexuala eta fisikoa dira. Itemak, alor horien araberrako, taula bitan banatzen dira; psikologikoa eta sexualari dagozkionak lehenengo taulan, eta alderdi fisikoari buruzkoak, bigarren taulan. Lehenengo taulan, 55 item daude, horietatik, 49 (1.-40., 45.,46. eta 49.-55. itemak) alderdi psikologikoari dagozkio, eta 6 (41.-44. eta 47. eta 48. itemak) alderdi sexualari; bigarren taulan, ordea, 14 item daude. Item guzti horiek egoera, jokabide, jarrera eta ekintza ezberdinak islatzen dituzte; batez ere, jasaten dituen gizon-emakumearentzat eta bikotearen osasunerako egoera edo ekintza kaltegarriak adierazten dituzte (arlo psikologikoaren barne, badaude, alderantziz, era positiboan formulatutako edo

onuragarriak liratekeen jokabideak adierazten dituzten 10 item). Hauek, bai galdetegia betetzen duen pertsonaren jokabidea, bai bere bikotearena kontuan hartzen dute. Azaldutakoaren adibide gisa hurrengo itemak: *edonoren aurrean nire eskubideak defendatzen ditut; nire bikoteak edonoren aurrean defendatzen ditu bere eskubideak; nire bikoteak nire sentimendu eta emozioak ukatzen ditu; nire bikotearen sentimendu eta emozioak ukatzen ditut.*

Hala eta guztiz ere, bigarren atal honen barruan, amaieran, indarkeria jaso dutela identifikatzen duten pertsonak bakarrik erantzun beharreko galderak daude, baina horretarako, puntuatu behar izan dituzten enuntziatu horietan emandako puntuazioan arreta jarri behar dute. Galderak hauek dira: *Aurretik aipatutako gertaera horiek egun jarraitzen dute? Klean, leku publikoetan edota etxean ematen ziren / dira? Jendearen aurrean edo bakarrik egotean?*

Hirugarren atala, berriz, bere baitan beste azpiatal batzuk hartzen ditu; hauen guztien xedea berdina denez, guztiak batera jarri dira. Atal honetako, azpiatal nagusiak bi dira: *Emozio, sentimendu eta pentsamenduak* eta *Indarkeria eta horrek izandako ondorioen aurrean eginikoa* izenekoak (biak tratu txarren biktima izan direnei zuzenduta daude). Lehenengoaren barne, hiru zati bereiz daitezke, eta horietako lehenengoan, Likert itemak erabiltzen dira berriz ere. Modu honetan, indarkeria pairatu zein eragin duen pertsonak betetzeko sei item daude, non galdetegiko 2. atalean bezalaxe, parte-hartzaileek gurutze bat egin behar duten beraien egoera gehien islatzen duen balioa (1 = inoiz, 2 = ia inoiz edo noizbait, 3 = noizbehinka, 4 = askotan eta 5= beti) adierazten duen laukian. Item horiek, beraien bikote harremanari zein bikotekideari buruz dituzten pentsamendu, emozio eta sentimenduei egiten diete erreferentzia, eta horien artean hauexek daude: *nire bikotekideak baztertzen nauela sentitzen dut; nire neska-/mutillagunarekin egonik, pozik nago.* Bigarren zatian, aldiz, indarkeria psikologikoa, fisikoa edota sexuala jasandako unean bertan, bizi izandako emozio, sentipen eta burutazioak dira interesekoak. Horretarako, esandako osagaiekin osatutako bi taula (bat emozio eta sentimenduekin, eta bestea pentsamenduekin) egin dira, non bortizkeriaren biktimek, aukera bat baino gehiago marka dezaketen, eta haiek sentitutakoa / pentsatutakoa adierazten duen ezer ez egotekotan, “beste bat” aukera hautatu, eta nahi badute, beraienkin bat datorrena jar dezakete. Hirugarren zatian, oster, item betegarriak erabili dira; norbanakoak indarkeria jaso baino lehen, norbaitek berarenganako indarkeria sustatzen zuenean / saiatzean, honek izaten zituen emozio edo pentsamenduak jartzeko, eta horren eraginez, nola jokatzen zuen ere. Honekin, bikotearengandik jasotako tratu

txarrek pertsonaren jokabidea aldatzea eragin duten edo ez egiaztatu nahi da. Amaitzeko, *Indarkeria eta horrek izandako ondorioen aurrean eginikoa* azpi-atalean, soilik tratu txarrak pairatu dituzten gazteek erantzun beharreko, bai / ez eratako itemak sartu dira (taula baten barruan). Hala nola, *laguntza psikologiko profesionala jaso dut egoerari aurre egiteko*.

3.3. Datuen analisisa

Datuen azterketarako, *R Commander* programa estatistikoa erabili da. Horren bidez, aldagai kuantitatiboen analisisa egin da batik bat. Aldagai kuantitatibo anitzen konbinaketaz aldagai berriak sortu dira; osasunaren arlo ezberdinak kontuan izanik. Aldagai berriak eratzekoan, ikasle bakoitzak alorka lortutako puntuazioaren batez bestekoari begira egin da. Horrez gain, aldagai desberdinen laburpen deskriptiboak egin dira, eta aldagai kuantitatibo ororen zenbakizko laburpena atera ere; bataz bestekoa zein desbideratze tipikoa atera da, eta aldagai kuantitatibo horiek, zenbait aldagai kualitatiboren (faktoreak) arabera duten bataz bestekoa eta desbideratzea ere, kalkulatu da. Programa honen bitartez ere, esparruka definitutako aldagai kuantitatibo ezberdinen arteko harremana kalkulatu da; honetarako, Pearson-en korrelazio koefizientea erabili da. Eskalaren fidagarritasuna zenbatekoa den jakiteko, ostera, Cronbach alfa erabili da, eta galdetegiaren alderdi desberdinei dagozkien aldagai kuantitatibo guztiak hartu dira; ondoren, aldagai horien fidagarritasuna beren jatorrizko eskalaren arabera neurtu da. R-ren bidez aztertu ezin daitezkeen datu kualitatiboak, Excel-en datu guztiekin osatutako taula behatuz, eta ondorioz, item irekietan ikasleek emandako erantzunen antzekotasunei erreparatuz, aztertu dira.

4. Emaitzak eta ondorioak

4.1. Emaitzak

Alde batetik, *Ezagutza eta iritzia* blokean dauden galderak aztertuz, lau galderetan gazteek ematen dituzten erantzunak, euren artean oso antzekoak direla ikusten da. Horrela, lehenengo galderaren erantzunean, 92 pertsonako laginetik, 46 pertsona baino gehiagok, genero indarkeriaren eta ezkongaien arteko indarkeriaren artean desberdintasunik ez dagoela esaten du, eta horietatik, batzuek, biak indarkeria direla gehitzen dute. Bi gertakarien artean, desberdintasuna dagoela aitortzen dutenek, aldiz, bi ezberdintasun nagusi aipatzen dituzte: batetik, genero indarkeria emakumeek soilik

pairatzen dutela, eta ezkongaien artekoa bi sexuek jasaten dutela esaten dute, eta batzuek ere, “ezkongaien artean ematen diren tratu txarren arrazoia ez dela generoa izan behar” gaineratzen dute; bestetik, genero indarkeria gizartearen eremu guztietan eman daitekeela, orokorra dela, esaten dute, eta bestea, bikotearen baitan bakarrik ematen dela, gehitzen dute. Bigarren eta hirugarren galderen (edozein motako harreman afektibo osasuntsuak izan beharreko baldintzak, eta bikote-harreman osasuntsuak izan beharrekoak) erantzun bezala, nahiz eta galderen protagonistak pertsona desberdinak diren, baten bat izan ezik, ez dute desberdintasunik azpimarratzen, eta bietan honako ezaugarri hauek egotea ezinbestekoa dela kontsideratzen dute: elkarrenganako konfiantza, errespetua, maitasuna, askatasuna, zoriontasuna, berdintasuna eta gauza ona / txarrak partekatzea eta konpontzen saiatzea. Horrez gain, batzuek, enpatia, ekitatea, erresilientzia eta asertibotasuna bezalako jarrerak aipatu dituzte. Hala ere, kasuren batean, harreman osasuntsuaren inguruko irudiak beste ikuspegi bat hartzen du, izan ere, pertsona bik, bata besteari gauza txarrak ez egiteari garrantzia ematen diote galdera hauen baitan. Gainera, horietako batek testualki “zure pertsonari bai fisikoki bai sentimentalki minik ematen ez dizuna edo txarto sentiarazten ez dizuna” esaten du, eta horri “biak errespetatzea eta dituzten beharrak (afektiboak...) beteta egotea” gehitzen dio. Ondorengo galderan, ekintza bortitz bat identifikatzeko gaitasunaz ari den horretan, 92tik 76k gai izango zela edo hori uste duela behintzat, adierazi dute. Hauez gain, beste pertsona batek ere, baietz esan du, baina bere erantzunean, erasoen subjektibotasunari egin dio erreferentzia. Besteek, ordea, era ugarietako erantzunak eman dituzte: bai, gehienetan; argia bada bai; agian ez guztiak; eta egoeraren arabera. Azkeneko erantzunei hauek batzen zaizkie, “askotan ez”, “larriak bai, psikologikoak agian ez”, “bai, bultzada bat”, “fisikoak bai, psikologikoak ez” eta “ez”. Azkenik, ezagutza eta iritziaren jatorriaz galdetuz, erantzunetan agertzen diren iturriak, familia, hezkuntza instituzio desberdinak, liburuak, komunikabideak (sare sozialak, irratia, telebista, etab.), bizipen eta esperientziak, hurbileko egoerak eta lagunak daude. Bestelako erantzunak badaude ere: feminismoa; elkarte ezberdinek emandako informazioa; emakume izatea; eta bestearen azalean jartzea. Baina badago besteekin alderatuz guztiz desberdina den bat, “egoera batzuetan ez naiz konturatzen agian *bortitza* izan dela”.

Bestalde, galdetegiaren *Gertaera edo ekintzak* izeneko atala dago; hau, 69 itenez osatutako eskala osatzen du. Eskala horretan, Cronbach-en alfaren balioa kalkulatu da, eta hori 0,87 izanik, fidagarritasun altua erakusten du. Horrez gain, eskala horren barne dauden beste azpi-eskala batzuk neurtu direnean, alfa balio hauek lortu dira: 0,89 (arlotu

fisikoa, 14 item), 0,82 (arlotik psikologikoa, 49 item) eta 0,65 (arlotik sexuala, 6 item). Modu honetan, argi ikusten da, arlotik fisikoan zein psikologikoan daudela fidagarritasun balio altuenak, eta sexualari dagokion horretan, ostera, fidagarritasuna handi samarra da. Horrez gain, arlotik psikologikoaren baitan sartuta dauden bi eskalen fidagarritasuna kalkulatu da ere, eta hauek, 0,79 (gaitasun sozialak, 10 item) eta 0,91 (indarkeria psikologikoa, 39 item) balioak izan dituzte.

Aurretik aipatutako azpi-eskala horien artean zer-nolako erlazioa dagoen egiaztatzeko, Pearson-en korrelazio koefizientea kalkulatu da. Batetik, arlotik fisikoaren eta psikologikoaren arteko harremana (0,69) atera da, baina baita arlotik fisiko eta sexualaren (0,6) zein arlotik psikologiko eta sexualaren artekoa (0,42) ere. Ateratako bi lehenengo balio horiek, izendatutako eskalen artean elkar harremana dagoela, eta hori altua dela adierazten dute; 0,42 balioak ere, harremana dagoela erakusten du, baina hau ertaina dela. Bestetik, arlotik fisikoak zein sexualak, arlotik psikologikoaren baitan dauden beste eskalekin duten harremanaren neurketa egin da. Modu horretan, arlotik fisiko eta indarkeria psikologikoa deituriko eskalen artean dagoen harremana altua (0,74) dela ikusi da. Arlotik sexual eta indarkeria psikologikoaren artean, ordea, 0,41eko balioaz, dagoen erlazioa ertaina dela frogatu da. Gainera, esanguratsua da, arlotik sexualari zein fisikoari erreferentzia egiten dioten eskalak, arlotik psikologikoaren baitan dagoen beste eskalarekin duten harremana kalkulatzeko, harreman mota ezberdina ohartzen dela: gaitasun sozialak eta alor fisikoaren arteko harremana (-0,45) alderantzizkoa eta ertaina da; eta alor sexualaren eta gaitasun sozialaren artean, berriz, ez dago harremanik (-0,16). Beraz, gizabanako batek dituen gaitasun sozialak zenbat eta garatuago egon, orduan eta probabilitate gutxiago du indarkeria jasateko edo eragiteko, eta alderantziz.

Horrez gain, ondorengo taulan ikusten denez, ikasle guztiek arlotik duten puntuazioaren batzuk bestekoak hartu dira, batzuk besteko orokorrak ateratzeko; horrela, desbiderapen tipikoa, hartutako laginaren zatia, eta daturik ez egotearen eraginez, kanpoan utzitako laginaren zatia agertzen dira ere. Taulan, alor sexual zein fisikoan lortutako puntuazioaren batzuk bestekoak, bestetik, 1,02 (fisikoa) eta 1,07 (sexuala) dira, eta hortaz, esparru horietan ikasleek izandako puntuaketa oso baxua da. Hau, positiboa da, izan ere, bi atal hauetako itemak ekintza kaltegarriak baino ez dituzte adierazten, eta beraz, puntuaketa balio horien artean egoteak, deskribatzen diren ekintzak “inoiz” edota “ia inoiz edo noizbait” sustatu edo jasan dituztela esan nahi du. Modu berean, ikus daiteke arlotik sexualari dagozkion ekintzak maiztasun gehiagorekin ematen direla. Gainera, bi esparru hauen desbideratzeak txikiak direnez, datuen sakabanatzea txikia

dela esan daiteke. Horrez gain, arlo psikologikoaren baitan, hiru talde egin dira: gaitasun sozialak, indarkeria psikologikoa eta guztizkoa; zehazki, zati bakoitzeko itemetan lortutako bataz besteko puntuazioa eta desbiderapena ezagutzeko. Honela, gaitasun sozialei dagozkien itemetan, 4,35 balioa duen bataz bestekoa lortu da, 0,43ko desbideratze tipikoarekin; eta indarkeria psikologikoari dagozkion horietan, ostera, 1,33 (bataz bestekoa) eta 0,32 (desbiderapena). Horrek zera esan nahi du: bataz besteko horien barne dauden balioen artean ez dagoela desberdintasun handirik, desbiderapenak oso altuak ez direnez, datuak sakabanatze txikia erakusten baitute. Alderdi psikologikoaren guztizkoan, 76 pertsonak lortutako bataz bestekoa 1,95koa da (5etik), eta horren desbiderapena 0,22; azkeneko hau oso handia ez denez, balioak bilduak daudela esan nahi du.

Taula 2. Ikasleen guztizkoak, arloka lortutako bataz besteko puntuazioa.

Arlo ezberdinak / Eragiketak	Arlo Fisikoa (N = 84, daturik gabe = 8)	Arlo Sexuala (N = 87, daturik gabe = 5)	Arlo Psikologikoa		
			Gaitasun Sozialak (N = 84, daturik gabe = 8)	Indarkeria Psikologikoa (N = 79, daturik gabe = 13)	Guztira (N = 76, daturik gabe = 16)
Bataz bestekoa	1.02	1.07	4.35	1.33	1.95
Desbiderapen tipikoa	0.14	0.21	0.43	0.32	0.22

Jarraian dauden sei tauletan, datuak bi faktoreen arabera sailkatuta daude. Faktore horiek hauexek dira: ikasketak eta sexua.

Taula 3. Parte-hartzaileek jorratutako ikasketen arabera, arlo psikologikoan izandako bataz besteko puntuazioa.

Ikasketa motak / Eragiketak		Haur Hezkuntza	Gizarte Hezkuntza	Goi-mailako Zikloa	Erdi-mailako Zikloa	DBH
Batez bestekoa	Gaitasun sozialak	4,49	4,31	3,85	3,85	3,60
	Indarkeria Psikologikoa	1,23	1,33	1,41	2,92	2,61

	Guztira	1,89	1,94	1,91	2,94	2,82
Desbideratze tipikoa	Gaitasun sozialak	0,34	0,42	0,21	1,20	
	Indarkeria Psikologikoa	0,18	0,24	0,11		
	Guztira	0,13	0,19	0,04		
N	Gaitasun sozialak	33	46	2	2	1
	Indarkeria Psikologikoa	34	41	2	1	1
	Guztira	32	40	2	1	1
Daturik gabe	Gaitasun sozialak	3	5	0	0	0
	Indarkeria Psikologikoa	2	10	0	1	0
	Guztira	4	11	0	1	0

Taula 4. Ikerketako parte-hartzaileek sexuaren arabera, arlo psikologikoan izaniko batez besteko puntuaketa.

Sexua / Eragiketak		Mutila	Neska
Batez bestekoa	Gaitasun sozialak	4,25	4,37
	Indarkeria Psikologikoa	1,38	1,31
	Guztira	2,00	1,93
Desbideratze tipikoa	Gaitasun sozialak	0,46	0,43
	Indarkeria Psikologikoa	0,30	0,32
	Guztira	0,23	0,22
N	Gaitasun sozialak	15	69
	Indarkeria Psikologikoa	14	65
	Guztira	13	63
Daturik gabe	Gaitasun sozialak	4	4
	Indarkeria Psikologikoa	5	8
	Guztira	6	10

Taula 5. Parte-hartzaileek jorratutako ikasketen arabera, arlo sexualean lortutako batz besteko puntuazioa.

Eragiketak / Ikasketa motak	Batz bestekoa	Desbideratze tipikoa	N	Daturik gabe
Haur hezkuntza	1,05	0,20	36	0
Gizarte hezkuntza	1,06	0,14	46	5
Goi-mailako Zikloa	1,08	0,12	2	0

Erdi-mailako Zikloa	1,67	0,94	2	0
DBH	1,00		1	0

Taula 6. Sexuaren arabera, pertsona parte-hartzaileek arlo sexualean lortutako batez besteko puntuaketa.

Eragiketak / Sexua	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	N	Daturik gabe
Mutila	1,13	0,24	16	3
Neska	1,05	0,21	71	2

Taula 7. Ikerketan parte hartu duten pertsonen, ikasketen arabera, arlo fisikoan lortutako bataz besteko puntuazioa.

Eragiketak / Ikasketa motak	Bataz bestekoa	Desbideratze tipikoa	N	Daturik gabe
Haur hezkuntza	1,00	0,00	36	0
Gizarte hezkuntza	1,01	0,05	43	8
Goi-mailako Zikloa	1,00	0,00	2	0
Erdi-mailako Zikloa	1,61	0,86	2	0
DBH	1,28		1	0

Taula 8. Sexuaren arabera, parte-hartzaileek arlo fisikoan lortutako batez besteko puntuazioa.

Eragiketak / Sexua	Batez bestekoa	Desbideratze tipikoa	N	Daturik gabe
Mutila	1,02	0,07	16	3
Neska	1,02	0,15	68	5

Aurreko datuen bidez, galdetegiaren bigarren atal honen barruan, maiztasun handienarekin agertzen diren ekintzak arlo psikologikoari dagozkionak direla agerian uzten da. Maiztasun txikiarekin agertzen direnak, ordea, arlo sexualari dagozkionak dira, eta alor fisikoaren barne sartutakoak, oraindik eta txikiagoa erakusten dute. Horregatik, sakontasun gehiagoz, soilik alor psikikoari dagozkion horiek aztertuko dira. Honela, horren barne, gaitasun sozialei dagozkien itemetan emandako puntuazioak gehienetan oso altuak direla behatzen da, eta horrek esan nahi du, bikotekidearen eta beraien inplikazioa harremanean ia erabatekoa dela, eta bi aldeetatik, harremanaren osasunerako onak diren ohiturak mantentzen dituztela. Esaterako, bikotearen ikuskera errespetatzea, bikotekidea behar duen guztian laguntzea eta harremana hobetzeari

zuzenduta egiten diren proposamen edo iradokizunak kontuan hartzea eta praktikara eramatea. Hala ere, horietatik, guztira batz besteko baxuena duen aldagaia, 3,80ko balioarekin, 9. itemari, “nire bikotekideak gure harremana hobetzeari bideratuta, esaten diodana entzuteaz gain, kontuan hartu eta praktikara eramaten du” dagokiona da. Indarkeria psikologikoa definitutako zatian, ostera, nahiz eta ikasleek bertako item gehienak 1eko edo 2ko puntuazioaz adierazi, badaude parte-hartzaileen artean maiztasun handiagoarekin errepikatzen diren ekintzak. Gertaera horiek, hain zuzen ere, orokorki, bai galdetegia egiten dutenen partez, bai beraien bikotekideen partez ematen dira. Hala ere, emaitzek adierazten duten legez, egoera hauek beraien bikoteen partetik ematen dira maiztasun gehiagoz. Ekintza horiek hauek dira:

- “Nire bikotekideak, berak edo nik, beste pertsona batzuekin izandako liskarrak, arazo edo gaizki ulertuak direla eta, nire aurka jotzen du” (bataz bestekoa = 1,87). / “Nik, nire bikotekideak edo nik, beste pertsona batzuekin izandako liskarrak, arazo edo gaizki ulertuen ondorioz, nire mutil-/neska-lagunaren kontra jotzen dut” (bataz bestekoa = 1,79).
- “Nire neska-/mutil-lagunak, niri bere sentimendu eta emozioak ezkututzen saiatzen da” (bataz bestekoa = 2,15). / “Nire neska-/mutil-lagunari, nire sentimendu eta emozioak ezkututzen saiatzen naiz” (bataz bestekoa = 1,91).
- “Nire bikoteak nire sentimendu eta emozioak ukatzen ditu” (bataz bestekoa = 1,42). / “Nire bikotearen sentimendu eta emozioak ukatzen ditut” (bataz bestekoa = 1,3).
- “Bion eztabaida batean, edo beste egoeraren batean, nire bikotekidea oihuka hasten da, edota tonu zakarra erabiltzen du nigana zuzentzeko” (bataz bestekoa = 1,82). / “Bion eztabaida batean, edo beste egoeraren batean, oihuka hasten naiz, edota tonu zakarra erabiltzen dut beragana zuzentzean” (batez bestekoa = 1,72).
- “Egoeraren batean, nire mutil-/neska-lagunak iraindu, zirikatatu nau edota umiliatzen saiatu da” (bataz bestekoa = 1,34).
- “Egoeraren batean nire mutil-/neska-lagunak xantaiatu nau” (batez bestekoa = 1,34).
- “Nire bikotekideak ni errudun sentitzea bilatu/egin du” (bataz bestekoa = 1,64) / “Nire bikotekidea errudun sentitzea bilatu/egin dut” (bataz bestekoa = 1,41).
- “Nire bikotekidea, bere kontra ez doan, baina gustatzen ez zaion ekintza bat gauzatu dudanean edo gustatzen ez zaion zerbait esatean, nirekin haserretu da,

zigortu nau, alde batera utzi nau edota denbora batez ez dit hitz egin” (bataz bestekoa = 1,38).

- “Nire bikotekidea ni jeloskor jartzen saiatu da” (bataz bestekoa = 1,62) / “Nire bikotea jeloskor jartzen saiatu naiz” (bataz bestekoa = 1,51).

- “Nire bikotekideak iruzur egitea edo gezurra esatea leporatu dit” (bataz bestekoa = 1,46). / “Nire bikotekideari iruzur egitea edo gezurra esatea leporatu diot” (bataz bestekoa = 1,45).

4.2. Eztabaida eta ondorioak

Ikerketaren lehenengo helburua epe labur, ertain eta luzean, indarkeriak osasun fisiko, sexual eta psikikoan duen eragina aztertzea izan da. Hala ere, hau ezin izan da askorik aztertu. Izan ere, ikerketa hau, hautatutako laginean bortizkeria mota hau jasan duten pertsonak dauden edo ez jakin gabe abiatu da, eta horregatik, ikerketaren baitako atal bat, gazteek hau jasan duten edo ez ikusteko izan da. Gauzak horrela, galdetegiaren *Gertaera edo ekintzak* atalari esker, 92 pertsonatik bik bakarrik, ezkongaien arteko indarkeria pairatu dutela atera da. Beraz, helburu horretan, zein beste bietan “biktimek beren gogamenean, zein gorputzaren osasunean, indarkeriaren eraginez, emandako aldaketen identifikazioa, eta aldaketa horien inguruan duten pertzepzioa edo pentsamoldea ezagutzea” eta “biktimek osasunean izandako galeraren ondorioz egindakoa edo aurrera eramandako ekintzak zeintzuk diren jakitea” planteatutakoa argitzen lagundu dezaketen galdetegi bakarrak, esandako bi gazte horiek erantzundakoak dira.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa kontuan edukiz, nahiz eta emaitzetan jarri ez den, jarraian indarkeria identifikatu duten pertsonak adierazitakoa jartzea komeni da, izan ere, informazio hori, lehen esan den moduan, oso lotuta dago ikerketako helburuekin, eta nahiz eta bertatik ateratako ondorioak ez diren oso adierazgarriak izango, ondorioak ezin direlako orokortu (pertsona bik soilik jaso dituzte tratatu txarrak), hein txiki batean, beste ikerketa batzuetan ikerleek atera dutenarekin zerikusia duten edo ez ikus daiteke. Gauzak horrela, bortizkeria identifikatu duen pertsonetako batek, indarkeria psikologikoa pairatu du, eta besteak, psikologikoa, sexuala zein fisikoa; galdetegia erantzun duten biak neskak dira. Indarkeria psikologikoa jasan duenak, batik bat, bikoteak bera eraso duela adierazi du galdeketan; bestearen kasuan, bakarrik bikoteak igorri dituela horrelako erasoak beraren aurka adierazi du, eta ahal izan duen eran,

defendatzen saiatu dela. Hauek erantzundakoan murgilduz, biak adierazten dute ekintza horiek kalean zein etxean eman direla, baina era ezberdinetako indarkeria pairatu duenak, bakarrik zeudenetan ematen zirela esaten du; besteak, aldiz, bakarrik daudenean zein beste pertsonen aurrean. Honela, batek oraindik bere harremana ez du apurtu, eta besteak bai. Horrez gain, galdera hauei erantzun dieten mutil eta neska bat daude ere; hauek tartean geratu dira, nolabait indarkeria identifikatu dute, baina indarkeria jaso duten pertsoneri soilik bideratutako atala ez dute bete. Mutilak, galdeketan emandako puntuazioa ikusita, onartzen du biek, noizbehinka edo askotan, gauzatzen dituztela osasun psikologikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeen ekintzak, eta noizbait ere indarkeria fisikoa (1.,2. eta 3. itemetan) erabili dutela biek. Honela, berak bere neska-lagunarekin noizbait murrizketa metodoren bat erabili duela esaten da, eta alderdi psikologikoari dagokionez, biak defentsa moduan hitzezko eraso edo irainak erabili dituztela. Honetan, ekintza horiek, gazteetan gehien ematen direnak dira, baina mugikorra ezkutatzearena edo baimenik gabe hartzearena, norbait ikustea debekatzearena, zein nola jantzi behar duten esatearena ere, agertzen dira (ekintza horietako gehienak, neska-lagunak maiztasun gehiagoz jarduten ditu). Aipatu den neskari dagokionez, ordea, indarkeria fisikoa noizbait (1 eta 2 itemak) erabili dutela onartzen du, eta indarkeria psikologikoaren igorle nagusia bere bikotekidea dela (bikoteak mugikorra ezkutatu edo baimenik eskatu gabe hartu dio, norbait ikustea debekatu dio, bikotekideak gustuko ez duen zerbait egitean bera alde batera utzi du, etab.) behatzen da. Hau jakinik, esan daiteke, lau pertsona hauek bikote harremanean jasandakoa, eta González-Ortegak, Echeburúak eta Corralegak (2008) zabalduetako lanean azalduetako, oldarkortasun edo gutxiespen, umilazio, jeloskortasun eta jazarpen edo kontrol egoerak auto-estimaren hondamena dakarte (O’Leary & Slep, 2003; Muñoz-Rivas, Graña, O’Leary & González, 2007), bat egiten dutela. Horrez gain, neska honek, noizbait, bere bikotekideak berarekin era ezberdinetako sexu harremanak gauzatzera behartu diola aitortzen du. Ekintzak egun jarraitzen duten ala ez galderari, neskak ez dio erantzuten, eta mutilak ezetz dio. Bortizkeria non ematen den galderari erantzutean, neskak “kalean batzuetan, baina ez dira oso larriak izan, eta badakit ez duela ezer txarrrik bilatu inoiz” erantzun duen bitartean, beste parte-hartzaileak, etxe eta leku pribatuetan, bakarrik egotean, ematen zirela erantzun du. Honela, neskak emandako erantzuna, Sebastiánek, Ortizek, Gilek, Gutiérrez del Arroyok, Hernáizek eta Hernándezek (2010) aipatzen dutenarekin, zerikusi handia duela ikusten da: emakumearen eta gizonaren inguruko rol sexista edo tradizionalak, gizonaren kasuan indarkeria eragiteko

tendentziarekin lotuta dauden artean, emakumearen kasuan, hori onartzera edo justifikatzearekin lotzen dira (Mullender, 2000; Yanes & González, 2000).

Horrez gain, indarkeria identifikatu duen batengan behintzat, Sebastián, Ortiz, Gil, Gutiérrez del Arroyo, Hernáiz eta Hernández (2010) egileek, beste autore batzuen ikerketak oinarri hartuta, bikote harremanarekiko asebetetze zein poztasun maila baxua (Katz, Washinton & Coblentz, 2002), izan duela baieztatzen da. Hori jakiteko, *Emozio, sentimendu eta pentsamenduak* izeneko atalean, hauek jarritako puntuaketa interpretatu da. Hala ere, bortizkeria psikologikoa jasan duenak, kontraesanak erakusten ditu bere erantzunetan, erasoak jasan dituen izandako emozioei zein sentimendu eta pentsamenduei erreparatuz, beste neskak izan dituen antzekoak direla ikusten baita, eta hortaz, hainbat gauzen artean, ez da posible ikusten harremanean pozik egotea edota babes sentsazioa eta konfiantza edukitzea; baliteke bere burua engainatzen aritzea edo errealitatea irudizko poztasun batekin faltsutzen aritzea. Neska hauek sentitutakoari dagokionez, erruduntasuna, izua, beldurra, frustrazioa, atsekabea, gorrotoa eta tristura direla esan behar da; eraso psikiko horiekin lotutako pentsamenduak, ostera, “ez dut ezertarako balio”, “ez nau errespetatzen, beti zapaltzen nau”, “norbaiten laguntza behar dut, ezin dut horrela jarraitu”, “harremana apurtuko dut”, “maite nau” eta “eskubidea du hori egiteko” izan dira. Abusu fisikoak jasan dituen neskak, horiek pairatzerakoan, izua, gorrotoa, beldurra eta frustrazioa sentitu ditu; izandako pentsaerak, aldiz, “atzera bueltako banintz, ez nuke berarekin bikote harremanik izango” eta “ez dut ezertarako balio, dena egiten dut txarto” izan dira. Eraso sexualak jasotzerakoan, berriz, frustrazioa, atsekabea eta tristura sentitu ditu, eta “maite nau”, “ez du nahita egin”, “ez dut ezertarako balio” eta “edonori gerta dakioke” bezalako pentsamenduak izan ditu. Honela, ikerketa honetan egiaztatzen den bezala, tratu txar psikologiko eta fisikoen zein sexualen dagoen harremana ikusten da; sentimendu oso antzekoak izan ditu pertsonak eraso mota ezberdinen aurrean. Pertsona honek, gainera, bere buruaz beste egiteko ideiak izateaz gain, bere buruaz beste egiten saiatu dela ere adierazi du, eta indarkeria mota desberdinen eraginez, bere burua beste era batera lesionatu duela esan du ere, baina gehiagotan saiatu dela jasotako abusu psikologikoak direla eta. Ildo hau jarraituz, beste neskak ere, eraso psikologikoak direla eta, bere burua lesionatu duela esan du, baita bere noizbait bere buruaz beste egiten saiatu dela, eta hori egiteko pentsamenduak asko izan direla ere. Hau erreferentziatzat harturik, esan daiteke, nahiz eta hauek zein laginek beste gazte guztiek ideia berdintsuak dituzte harreman osasuntsu baten inguruan, eta bertan ikuspegi errealista erakutsi duten, “maite nau” eta “badakit ez duela

ezer txarrik bilatu inoiz” izaera honetako pentsamenduek, zein galdetegiko Likert item batzuetan beste batzuek ere jarri dituzten puntuaketak, González-Ortega, Echeburúa eta Corral (2008) autoreek, amodioari eta bikote harremanari buruz, “Informe de la Comisión para la Investigación de Malos Tratos a Mujeres” (2005) dokumentutik ateratako ideia disfuntzional batzuekin antzekotasunak dituztela frogatzen da; bertan, “algun día cambiará porque, en el fondo, es buena persona” edo “a pesar de todo, lo quiero y me quiere” moduko pentsaerak ageri dira.

Jasotako tratu txarrek izandako ondorioen aurrean eginikoari dagokionez, bi neskek jarrera desberdina erakutsi dute, eta honela, indarkeria psikologikoa, sexuala eta fisikoa jasotako neskak, bikotekidea utzi du; besteak, ordea, ez. Lehenengoak, eraso fisikoak maiztasun handirekin jaso dituenek, zenbaitetan zauri, ebakidura edo kolpe larriak izan ditu, eta horiek tratatzeko medikura joan dela aitortu du. Gainera, eraso psikologikoak utzitako arrastoaren berri eman du ere, hain zuzen, antsietatea, estresa, depresioa, loaren nahasmenak eta anorexia; ondorioz, laguntza psikologikoa eskatu eta jaso du. Ikerketako beste parte-hartzaileak, abusu psikologikoak direla eta, laguntza psikologiko profesionala jaso du ere; lo egiteko zailtasunak, estresa, antsietatea eta depresioa izan baititu. Honela biek, Harned-ek 2001ean eta Howard-ek eta Wang-ek 2003an esandakoa, nolabait betetzen dute (Sebastian et al., 2010). Biktimen osasuna kaltetzen duten nahasmen eta gaixotasun hauen artetik, estresa eta antsietatea epe labur edo ertainean eman daitezke, baina elikadura nahasmen eta depresioak, epe luzeago batean ere irauten duten gaitzak dira edo izan daitezke. Horrez gain, biek lagunei zein familiari laguntza eskatu diotela baieztatzen dute, eta ez bata ez besteak, ez du indarkeria salatu (bietako bat ez da ausartzen). Bikotekidea utzi ez duen neskaren kasuan, bikotearekiko menpekotasunak, ondo azalduko lituzke bere erabaki eta jokabideak.

Azaldutakoaz gainera, kontuan izan behar da, gazte hauek bortizkeria pairatu baino lehen, beste norbaitek haien kontra, edozein motatako erasoak jaurtitzen zituenean zer sentitzen eta nola erantzuten zuten. Eraso psikikoen aurrean, bortizkeria mota ezberdinak jasan dituen neskak “indiferente” gisa deskribatzen du sentitutakoa, eta ondorioz, erasotzaileaz paso egiten zuela aitortzen du; bigarren neskak, paso egiten zuela ere, edo erasoari erantzuten ziola esaten du (haserrearen ondorioz). Norbaitek era fisikoko edo sexualeko abusuak gauzatzen saiatzean, ordea, lehenengo neskak, tristura eta amorrua sentitzen zituen bi kasuetan; horrela, eraso fisikoa bazen, elkarrizketa erabiltzen saiatzen zen bitartean, sexuarekin zerikusia duten horiekin, negar egiten zuen. Hau ikusita, indarkeriaren biktima izan baino lehen, eta ondoren izandako sentimendu

zein jokaeren artean, desberdintasuna ikusten da. Hau da, nahiz eta bikotea edo beste bat izan abusuen igorlea, eta min egitera bideratutako ekintzak direnez, biak mingarriak diren, beste pertsona batek esandakoa kontuan ez hartzera edo nor bere burua defendatzen saiatzeko joera handiagoa dago, bikotearekin ematen bada baino.

Esanenez, indarkeria jasan dutela identifikatu duten pertsonak bost izatera ere iristen ez direnez, lan honetan planteatu diren jomugetatik desberdinak diren helburuei erantzuten dien informazioa lortu da. Batetik, indarkeria jasan edo ez, gazteek horri buruz zein bikote harremanaren inguruan duten kontzepzioa zein den ezagutzea lortu da, eta horrekin lotuta, indarkeriaren identifikazioari begira, egon daitezkeen zailtasunei buruzko informazioa eskaini da ere. Honela, ikusten da, nahiz eta gazte askok ustez ekintza bortitz bat identifikatzeko gai diren, nahikotxok ez dutela argi hau identifikatzen dakiten edo ez; hau psikologikoekin gertatzen da, eta gainera, batzuek psikologikoei garrantzia kentzeko tendentzia erakusten dute (Sebastián et al., 2010). Bestetik, neskak zein mutilak erasotzaile zein biktima izan daitezkeela demostratu da, nahiz eta, arlo sexualari dagozkion, eta 2 edo puntuazio altuagoa lortu duten ekintzek, orokorki, mutilek aurrera eramaten dituzten, eta fisikoak ere (nahiz eta emaitzetan hala ez den adierazten, fisikoki erosituak izan direnak, gehienbat, neskak izan dira, eta sexualki ere, neskak). Gainera, ikusi da, ikasketa mailak, bikote harremanean indarkeria jasateko edo eragiterako unean zertxobait eragiten duela; bortizkeria identifikatu baituten horiek, ikasketa maila baxuenetarikoak dituzten horiek izan dira. Hala ere, izan daiteke, ikasketa mailaz aparte, sustatutako ikasketa motak ere eragitea; Haur Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduetan, edozein abusuren sustapenari kontra egiteko bitartekoak ematen edo pertsonen ongizatea lortzeari begira kompetentzia desberdinak lantzen direla suposatzen da. Guzti honek, erabateko esangura du; Blázquez, Moreno & García-Baamonde (2015) egileek, hiru autoreen bidez batzen duten moduan, inteligentzia emozionalaren eta frustrazioarekiko zein, egoera txarretan, tentsio egoerekiko tolerantzia gaitasunen, norbanakoaren oreka emozionala handitzen laguntzen dute (Bermúdez, Álvarez & Sánchez, 2003). Horrez gain, ikus daiteke ere, gizarteak bi sexuen desberdintasunak areagotzeko, sexu bakoitzari sustatzen dizkion baloreen kutsua. Izan ere, bikoteari bere emozioak eta sentipenak ezkutatzerena, gehienbat, mutilak egiten dutela egiaztatu da galdetegian, eta ostera, neskak bikotearengandik jasotako eraso psikologikoak gauza arrunt bezala jotzeko ohitura handiagoa dutela.

Azkenik, esan behar da, nahiz eta ia ez dagoen tratu txarrik pairatzen duen gazterik, nahiko arduragarriak direla, arlo psikologikoari zein sexualari dagozkion emaitza batzuk. Izan ere, arlo psikologikoan maiztasun gehien erakusten duten ekintza ia gehienak, nolabait bikotekidearen jokabidea zuzentzera bideratuta daude, eta Alapont eta Garridok (2003) esaten dutena ardatz izanik, Gonzalez-Ortegak, Echeburúak & Corralek (2008) idatzitako artikuluan argi uzten den moduan, hori erasotzaile bat identifikatzea baimentzen duen seinaleetariko bat da. Eraso horiek, bi sexuek igortzen dituzte, eta era batean edo bestean, norberaren edo bestearen emozioekin erlazionatuta daude; izan ere, ekintza horien agerpenak, gazteek beren emozioak era egokian kudeatzen ez dakitela uzten dute agerian, eta ondorioz, beraien bikotekidearen oreka emozionalean nabarmen eragiten dutela. Gainera, tratu txar psikologikoak fisikoen aurrekariak direla kontuan hartu behar da, ikerketan ateratako emaitzetan, ez baita ikusi bortizkeria psikikoa ez duen indarkeria fisikorik. Horrez gain, sexu abusuekin berdina gertatzen da. Honela, indarkeria fisikoa zein sexuala egoteak, hein handi edo txikiago batean, psikologikoa dagoela esan nahi du, eta jasandako indarkeria maila hasiera batean zegoenarekin alderatuz, igo egin dela, eta oso handia dela. Arlo sexualean, ostera, gehien ematen den ekintza, batez ere neskek jasaten dutena, zera da: bikotekideari bular aldea edo sexu aparatua ukitzea, edota berak nahi ez duenean musukatzea edota arropa kentzea edo biluztea. Hau identifikatzea zaila izan daiteke gazteentzat; bikotekideak honelako ekintza bat aurrera eramaterakoan, nahiz eta beste pertsonaren oposaketa izan, baliteke behin eta berriz saiatzeko, eta ondorioz, nahi ez duenaren parteko onarpena lortzea. Guzti hau esanik, esateko, aipatzen diren ekintzen maiztasuna igoz gero, bortizkeria pairatzera edota eragitera eraman ditzakeela gazteak, eta kasu batzuetan ere, nahiz eta indarkeria bezala ez duten identifikatu, ekintza batzuen maiztasunarengatik, esan ahal da, ikerketako parte-hartzaile batzuek, jadanik, nolabaiteko tratu txarra jaso dutela.

Laburbilduz, biktimaren osasunerako eta ongizaterako, ezinbesteko esangura du hezkuntza-sistemaren baitan zein familiaren esparruan, emozio kudeaketa, elkarrizketa, entzute aktiboa, enpatia, erresilientzia, etab. bezalako konpetentziak lantzea. Era berdinean, onartezinak diren jokabideak salatzeak beraienez onuragarria dela ikusarazi behar zaie, eta gizarteak indarkeria onartzen ez duela ere; horretarako, gizarteak horretara bideratzen dituen baliabideak eskuragarriak egin behar zaizkie. Azkenik ere, komenigarria da, egoera horien aurrean dagoen irtenbidea norbere burua maitatzea dela erakustea, batez ere, prebentzioari begira. Horretarako, hoberena neska-mutilak txiki-

txikitatik gaitasun hauei lekua uzten dizkieten balioetan heztea da, eta hori betetzeko, hauen ongizate eta hezkuntza prozesu osoan inplikatzeko diren profesionalak prestatu behar dira, ikasleek dituzten arazoan aurrean erantzuten dutenak eta horiek saihesteari begira, sistemaren laguntzaz (curriculum), astero, era zuzenean, gaitasun hauen lanketari ordu jakin batzuk eskaintzen dizkietenak.

Argi geldi dadin, lan mota honek, gaiaren inguruan dagoen ezagutza zabaltzea bilatu du, baina miaketazko ikerketa bat izan denez, hemendik atera diren emaitzak ezin izan dira orokortu. Horregatik, hauek kontuan izanda, zoriz aukeratutako laginarekin ikerketa deskribatzailea egitea komeni litzateke orokorrean Bizkaian, ezkongaietan ematen den indarkeriaren egoera zein den ezagutzeko eta berari aurre egiteko.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Blázquez, M., Moreno, J. M. & García-Baamonde, M. E. (2015). Maltrato psicológico en las relaciones de pareja. La inteligencia emocional como factor protector y diferencias de género. En *Boletín de Psicología*, 113, 29-47. <http://www.uv.es/seoane/boletin/previos/N113-2.pdf>
- Celis-Sauce, A. & Rojas-Solís, J. L. (2015). Violencia en el noviazgo desde la perspectiva de varones adolescentes. En *Informes psicológicos*, 15(1), 83-104. doi: <http://dx.doi.org/10.18566/infpsicv15n1a05>
- Durán, M. & Martínez-Pecino, R. (2015). Ciberacoso mediante teléfono móvil e Internet en las relaciones de noviazgo entre jóvenes. En *Revista Científica de Educomunicación*, 22(44), 159-167. doi: <http://dx.doi.org/10.3916/C44-2015-17>
- González, I., Echeburúa, E. & Corral, P. (2008). Variables significativas en las relaciones violentas en parejas jóvenes: una revisión. En *Psicología Conductual*, 16(2), 207-225. <http://www.ehu.es/echeburua/pdfs/04GONZALEZ.pdf>
- Martín, A., Pazos, M., Montilla, M. V. C. y Romero, C. (2015). Una modalidad actual de violencia de género en parejas de jóvenes: Las redes sociales. En *Educación XXI*, 19(2), 405-429. doi: 10.5944/educXX1.13934
- Rodríguez-Franco, L., López-Cepero, J., Rodríguez, F. J., Bringas, C., Antuña, M. A. & Estrada, C. (2010). Validación del cuestionario de Violencia entre Novios (CUVINO) en jóvenes hispanohablantes: Análisis de resultados en España, México y Argentina. En *Anuario de Psicología Clínica y de la Salud*, 6, 45-52. http://institucional.us.es/apcs/doc/APCS_6_esp_45-52.pdf
- Rojas-Solís, J. L. & Carpintero, E. (2011). Sexismo y agresiones físicas, sexuales y verbales-emocionales en relaciones de noviazgo en estudiantes universitarios. En *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, 9(2), 541-564. <http://hdl.handle.net/10835/756>
- Rubio-Garay, F., Carrasco, M. A., Amor, P. J. & López-González, M. A. (2015). Factores asociados a la violencia en el noviazgo entre adolescentes: una revisión crítica. En *Anuario de Psicología*, 25(1), 47-56. <http://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S1133074015000082>
- Rubio-Garay, F., López-González, M. A., Saúl, L. A. & Sánchez-Elvira-Paniagua, A. (2012). Direccionalidad y expresión de la violencia en las relaciones de noviazgo

de los jóvenes. En *Acción Psicológica*, 9(1), 61-70. doi:
<http://dx.doi.org/10.5944/ap.9.1.437>

Sebastián, J., Ortiz, B., Gil, M., Gutiérrez del Arroyo, M., Hernáiz, A. & Hernández, J. (2010). La violencia en las relaciones de pareja de los jóvenes. ¿Hacia dónde caminamos? En *Clínica Contemporánea*, 1(2), 71-83. <http://www.copmadrid.org/webcopm/publicaciones/clinicacontemporanea/cc2010v1n2a1.pdf>

ERANSKINAK

1. eranskina. GALDETEGIA

1. Adina: _____.
2. Sexua: Emakumea Gizona
3. Zeintzuk dira zuk eginiko ikasketak? _____.
4. Zure bikote harremanak neska edo mutilekin izan dira? _____.

EZAGUTZA ETA IRITZIA

- Zer ezberdintasun dago ezkongaietan ematen den indarkeriaren eta genero indarkeriaren artean?

- Zer izango litzateke zuretzat edozein motatako harreman afektibo osasuntsua? Bikote harremanaren kasuan, baldintza hori betetzeko, nolakoa izan beharko luke?

- Jakingo zenuke ekintza bortitz bat identifikatzen?

- Zertan oinarrituz sortu duzu zure iritzia eta ezagutza?

GERTAERA EDO EKINTZAK

Atal honetan, zure esperientziaren arabera, batetik bosterainoko puntuazioaz baloratu behar dituzu ondoko baieztapenak. Puntuatzeko, 16 urte zenituenetik orain arte izandako edozein bikote erlazio hartu dezakezula erreferentziatzen. (Beti ere, hilabete bat edo gehiago iraun badu harreman hori).

1= Inoiz. 2= Ia inoiz edo noizbait. 3= Noizbehinka. 4= Askotan. 5= Beti.

Arlo psikologiko eta sexuala	1	2	3	4	5
1. Edonoren aurrean nire eskubideak defendatzen ditut.					
2. Nire bikoteak edonoren aurrean defendatzen ditu bere eskubideak.					
3. Nire bikotekidea, orokorki, behar dudan guztian, laguntzeko prest dago.					
4. Prest nago nire bikotekidea, orokorrean, behar duen orotan laguntzeko.					
5. Nire bikotekideak edozein gairen inguruan dudan iritzia isla dezadan uzten du, eta nire ikuskera, sinesmen eta usteak errespetatzen ditu, nahiz eta berdin ez pentsatu.					
6. Nire bikotekideak edozein gairen inguruan duen iritzia isla dezadan uzten dut, eta bere ikuskera, sinesmen eta usteak errespetatzen ditut, nahiz eta berdin ez pentsatu.					
7. Nire mutil-/neska-lagunak aholkuak eskatzen dizkit.					
8. Nire mutil-/neska-lagunari aholkuak eskatzen dizkiot.					
9. Nire bikotekideak gure harremana hobetzeari bideratuta, esaten diodana entzuteaz gain, kontuan hartu eta praktikara eramaten du.					
10. Nire bikotekideak gure harremana hobetzeari zuzenduta, esaten didana entzuteaz gain, kontuan hartu eta praktikara eramaten dut.					
11. Nire bikotekideak, berak edo nik, beste pertsona batzuekin izandako liskarrak, arazo edo gaizki ulertuak direla eta, nire aurka jotzen du.					
12. Nik, nire bikotekideak edo nik, beste pertsona batzuekin izandako liskarrak, arazo edo gaizki ulertuen ondorioz, nire mutil-/neska-lagunaren kontra jotzen dut.					
13. Nire neska-/mutil-lagunak, niri bere sentimendu eta emozioak ezkututzen saiatzen da.					
14. Nire neska-/mutil-lagunari, nire sentimendu eta emozioak ezkututzen saiatzen naiz.					
15. Nire bikoteak nire sentimendu eta emozioak ukatzen ditu.					
16. Nire bikotearen sentimendu eta emozioak					

ukatzen ditut.					
17. Bion eztabaida batean, edo beste egoeraren batean, nire bikotekidea oihuka hasten da, edota tonu zakarra erabiltzen du nigan zuzentzeko.					
18. Bion eztabaida batean, edo beste egoeraren batean, oihuka hasten naiz, edota tonu zakarra erabiltzen dut beragana zuzentzean.					
19. Egoeraren batean, nire mutil-/neska-lagunak iraindu, zirikatu nau edota umiliatzen saiatu da.					
20. Egoeraren batean, nire mutil-/neska-laguna iraindu, zirikatu dut edota umiliatzen saiatu naiz.					
21. Nire bikotekideak defentsa moduan niganako hitzezko eraso edo irainak erabili ditu.					
22. Nire bikotekidearenganako hitzezko erasoak edo irainak erabili ditut, defentsa gisa.					
23. Nire bikotekidea bere buruaz beste egiten saiatu da.					
24. Nire buruaz beste egiten saiatu naiz.					
25. Egoeraren batean nire mutil-/neska-lagunak xantaiatu nau.					
26. Egoeraren batean nire mutil-/neska-laguna xantaiatu dut.					
27. Nire bikotekideak ni errudun sentitzea bilatu/egin du.					
28. Nire bikotekidea errudun sentitzea bilatu/egin dut.					
29. Nire bikotekideak nola jantzi behar dudan esan dit.					
30. Nire bikotekideari nola jantzi behar duen esan diot.					
31. Nire bikotekideak nire lagun bat, ezagun bat edo senideren bat ikustea debekatu dit.					
32. Nire bikotekideari bere lagun bat, ezagun bat edo senideren bat ikustea debekatu diot.					
33. Nire bikotekideak mugikorra edo nirea den objekturen bat ezkutatu, edo baimenik gabe hartu dit.					
34. Nire bikoteari mugikorra edo berea den objekturen bat ezkutatu, edo baimenik gabe diot.					
35. Nire bikotekidea, bere kontra ez doan, baina gustatzen ez zaion ekintza bat gauzatu dudanean edo gustatzen ez zaion zerbait esatean, nirekin haserretu da, zigortu nau, alde batera utzi nau edota denbora batez ez dit hitz egin.					
36. Nire bikotekideak, nire kontra ez doan, baina gustatzen ez zaidan ekintza bat gauzatu duenean edo gustuko ez dudanean zerbait esatean, berarekin haserretu naiz, zigortu dut, alde batera utzi dut edota denbora batez ez diot hitz					

egin.					
37. Nire bikotekidea ni jeloskor jartzen saiatu da.					
38. Nire bikotea jeloskor jartzen saiatu naiz.					
39. Nire bikotekideak iruzur egitea edo gezurra esatea leporatu dit.					
40. Nire bikotekideari iruzur egitea edo gezurra esatea leporatu diot.					
41. Nire bikoteak niri, nahi ez dudanean, ipurdia, bular-aldea edo sexu aparatua ukitzen dit; musukatzen nau; edo arropa kentzen eta biluzten nau.					
42. Nire bikotekideari ipurdia, bular-aldea edo sexu aparatua, berak nahi ez duela jakinik, ukitzen diot; bera musukatzen dut; edo arropa kentzen eta biluzten dut.					
43. Nire bikotekideak berarekin era ezberdinetako sexu harreman edo ekintzak (koittoa, ukipenak...) gauzatzera behartu nau.					
44. Nire bikotekidea nirekin era ezberdinetako sexu harremanak edo ekintzak (koittoa, ukipenak...) gauzatzera behartu dut.					
45. Nire bikotekideak nire kontra aurrera eramandako eraso, gehiegikeri edo abusu psikologikoaren eraginez, nik nire burua lesionatu dut.					
46. Nik nire bikotearen kontra aurrera eramandako eraso, gehiegikeri edo abusu psikologikoaren eraginez, bera bere burua lesionatu du.					
47. Nire bikotekideak nire kontra aurrera eramandako eraso, gehiegikeri edo abusu sexualaren eraginez, nik nire burua lesionatu dut.					
48. Nik nire bikotearen kontra aurrera eramandako eraso gehiegikeri edo abusu sexualaren eraginez, berak bere burua lesionatu du.					
49. Nire bikotekideak ezarritako debekuak bete ditut.					
50. Nik nire bikotekideari ezarritako debekuak, berak bete ditu.					
51. Indarkeriaren eraginez, antsietatea eta estresa izan ditut.					
52. Indarkeriaren eraginez, depresioa izan dut.					
53. Indarkeriaren eraginez, loaren nahasmenen bat izan dut.					
54. Errespetuan eta ekitatean oinarritutako erlazioak ezartzeko zailtasunak ditut.					
55. Nire bikoteak errespetuan eta ekitatean oinarritutako erlazioak ezartzeko zailtasunak ditu.					

Arlo fisikoa	1	2	3	4	5
1. Egoeraren batean, nire bikotekideak bultza egin, jipoitu, kolpeak eman edo beste objektu batekin zauritu nau.					
2. Egoeraren batean, nire bikotea bultzatu, jipoitu, kolpeak eman edo objektu batekin zauritu dut.					
3. Egoeraren batean, nire bikotekideak objektuak jaurti dizkit, zerbaiten kontra bota edo apurtu ditu, edota ni zerbaiten kontra bota nau.					
4. Egoeraren batean, nire bikotekideari objektuak jaurti dizkiot, zerbaiten kontra bota edo apurtu ditut, edota bera zerbaiten kontra bota dut.					
5. Egoeraren batean, nire bikotekideak niganako indarkeria fisikoa erabili du auto-defentsa bezala.					
6. Egoeraren batean, nire bikotekidearenganako indarkeria fisikoa erabili dut auto-defentsa moduan.					
7. Nire bikotekideak nire aurka gauzatutako ekintza bortitz baten/batzuen ondorioz, zauriak, kolpeak, etab. izan ditut.					
8. Nire bikotekidearen kontra gauzatutako ekintza bortitz baten/batzuen ondorioz, berak zauriak, kolpeak, etab. izan ditu.					
9. Nire bikotekideak murrizketa metodoren bat erabili du nirekin.					
10. Murrizketa metodoren bat erabili dut nire bikotekidearekin.					
11. Nire bikoteak nire kontra aurrera eramaniko eraso, gehiegikeri edo abusu fisikoaren eraginez, nik nire burua lesionatu dut.					
12. Nik nire bikotearen aurka aurrera eramaniko eraso, gehiegikeri edo abusu fisikoa dela eta, berak bere burua lesionatu du.					
13. Indarkeria fisikoaren eraginez, zauri, kolpe, etab. larriak izan ditut.					
14. Indarkeria fisikoaren eraginez, zauri, kolpe, etab. larriak izan ditu nire bikoteak.					

Atal hau bakarrik **bete indarkeria jaso baduzu**; horretarako, jarri arreta arlo fisiko zein psikologiko eta sexualaren atalean, ageri diren baieztapenetan eman duzun puntuazioan.

Aurretik aipatutako gertaera horiek...

- Egun jarraitzen dute?
- Kanean, leku publikoetan edota etxean ematen ziren/dira? Jendearen aurrean edo bakarrik egotean?

EMOZIO, SENTIMENDU ETA PENTSAMENDUAK

Atal hau bakarrik **bete indarkeria jaso edo eragin baduzu**; horretarako, jarri arreta arlo fisiko zein psikologiko eta sexualaren atalean, ageri diren baieztapenetan eman duzun puntuazioan.

1= Inoiz. 2= Ia inoiz edo noizbait. 3= Noizbehinka. 4= Askotan. 5= Beti.

	1	2	3	4	5
1. Nire bikotekidearekin nagoenean, babestuta sentitzen naiz, baita ziurtasunez eta konfiantzarekin ere.					
2. Nire bikoteak baztertzen nauela sentitzen dut.					
3. Nire neska-/mutil-lagunarekin egonik, pozik nago.					
4. Nire buruaz beste egitearen inguruko pentsamenduak izan ditut.					
5. Nire bikotekidearekin borrokatzea edo lehiatzea gustatzen zait.					
6. Objektu sexual xumea sentitzen naiz.					

Bete indarkeria jaso baduzu. Posible da aukera bat baino gehiago hautatzea, eta zure egoerari dagokion aukerarik egon ezean, "beste bat" aukera markatu X batez, eta ahal bada jarri zer.

Izandako emozio eta sentimenduak	Indarkeria fisikoa jasatean	Indarkeria psikologikoa jasatean	Indarkeria sexuala jasatean
Beldurra, izua			
Gorrotoa			
Frustrazioa			
Balio gabea			
Harridura			
Haserrea, amorrua			
Atsekabea			
Poza			
Erruduntasuna			
Hunkipena			
Tristura			
Indiferentzia			
Beste bat			

Izandako pentsamenduak	Indarkeria fisikoa pairatzean	Indarkeria psikologikoa pairatzean	Indarkeria sexuala pairatzean
Atzera bueltako banintz ez nuke berarekin bikote harremanik izango. / Bera ezagutu izanaz damutzen naiz.			
Ez dut ezertarako balio, dena egiten dut txarto.			
Ez nau errespetatzen, beti zapaltzen nau. Ez du hori egiteko eskubiderik.			
Norbaiten laguntza behar dut, ezin dut horrela jarraitu.			
Ez nau maite, ez nau merezi.			
Maite nau. / Ez du nahita egiten.			
Harremana apurtuko dut. / Harremana apurtu behar dut.			
Sexua gorroto dut.			
Beste bat.			

Bete itzazu ondoko esaldiak:

- **Bortizkeria pairatu baino lehen**, norbaitek ni jipoitzen ninduenean/saiatzean, **emozio/sentimendu** hauek _____ izaten nituen. Ondorioz, honela **jokatzen** nuen: _____.
- **Bortizkeria jasan baino lehen**, norbaitek ni iraintzen, balioesten eta umiliatzen ninduenean/saiatzean, **emozio/sentimendu** hauek _____ izaten nituen. Ondorioz, honela **jokatzen** nuen: _____.
- **Tratu txarrak pairatu baino lehen**, norbaitek nire borondatearen aurka ni ukitzen ninduenean/saiatzean, **emozio/sentimendu** hauek _____ izaten nituen. Ondorioz, honela **jokatzen** nuen: _____.

INDARKERIA ETA HORREK IZANDAKO ONDORIOEN AURREAN EGINIKOA

Atal hau bakarrik **bete indarkeria jaso baduzu**. Egin gurutze bat zure egoera islatzen duen erantzunean.

	BAI	EZ
Zaintza eta sendagaiak behar izan dituzten zauri, kolpe, ebaki eta abar larriak edukitzean, medikura joan naiz.		
Laguntza psikologiko profesionala jaso dut egoerari aurre egiteko.		
Jasotako indarkeria dela medio, nire bikotekidea utzi dut.		
Indarkeria salatzen ausartzen naiz.		
Indarkeria salatu dut.		
Indarkeriaren edo horrek bultzatutako aldaketen aurrean laguntza eskatu diet lagunei.		
Indarkeriaren edo horrek bultzatutako aldaketen aurrean laguntza eskatu diot familiari.		